



Txosten orokorrak

# Nafarroako Kontu orokorrak (2022)




*2023eko azaroa*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA

[www.camaradecomptos.org](http://www.camaradecomptos.org)





## AURKIBIDEA

I. SARRERA .....	3
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA.....	6
III.1. 2022ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia.....	6
III.2. Legeria betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia .....	6
IV. IRITZIAREN OINARRIA.....	7
IV.1. Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria.....	7
IV.2. Legezketasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria .....	8
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	8
VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA.....	10
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA .....	11
VIII. NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA.....	13
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	14
X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA .....	16
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2022KO EKITALDIA.....	18
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA.....	24
2.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera.....	24
2.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera .....	28
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	30
4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA .....	32
4.1. CAT-SAP sistemen integrazioa.....	32
4.2. Zerbitzuak ematea kontratu-euskarri egokirik gabe .....	32
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK.....	35
5.1. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak .....	35
5.2. NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioa 2022ko abenduaren 31n .....	41
5.3. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak.....	44
5.4. Langile-gastuak.....	46
5.5. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak .....	53
5.6. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	57
5.7. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa .....	63
5.8. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak .....	67
5.9. Bestelako diru-sarrerak .....	72
5.10. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak.....	74
5.11. Diruzaintza .....	78
5.12. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk .....	79
5.13. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak .....	82
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	88





BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	90
2022KO KONTU OROKORRAREN OROITIDAZKIAREN LABURPENA.....	91





## I. Sarrera

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorriz eta 2023rako bere jarduketa-programari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (aurrerantzean, NFKA) eta haren menpeko entitateen 2022ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu, eta, horrekin batera, legeria betetze-ari buruzko fiskalizazioa egin du.

Azterketa lana 2023ko maiatzetik iraila bitartean egin du auditore batek zuzendutako lantaldeak. Auditoretzako sei teknikarik eta sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek eta erdi mailako beste batek osatu dute lantaldea. Halaber, Ganberaren zerbitzu juridikoen eta administratiboen laguntza izan da.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzaizen Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari eta kontseilari ohi-ari, alegazioak aurkez zitzaizen.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek argibideak dira, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren erakunde autonomoetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Txosteneko diru kopuruak biribildu egin dira, zentimorik ez agertzeko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez balio biribilduen gainean.



## II. Helburua eta norainokoa

Gure lanaren xedea izan da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2022ko ekitaldiko kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duten 2022ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

- Ea 2022ko ekitaldian NFKAk eta haren erakunde autonomoek egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

- Erregaietarako hobarien bidezko laguntzak eta diru-sarrera eta ondare maila apaleko pertsona fisikoentzako 200 euroko laguntzak berrikustea, horiek berriaz sartu baitziren Nafarroako Kontuen Ganberaren 2023. urterako fiskalizazio-programan.

Gure lanaren norainokoa 2022ko ekitaldiko kontu orokorrak eta 5. gehigarrian adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak biltzen ditu.

Lanaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldia izan da; baina, kasuan-kasuan, beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure azterketaren norainokoa zehazteko, honako hau hartu dugu kontuan:

- Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiaren 2023rako barne kontroleko planean 2022ari buruzko alderdi hauek jaso ziren:

- a) Etengabeko finantza-kontrola egitea kontsumoko osasun-materialen gastuei (51,44 milioi) eta protesien gastuei (24,65 milioi), bai eta O-NOZen diru-sarrerari ere.

- b) Munta txikiko kontratuen gastuak (130,04 milioi) aztertzea, bai eta aurreko kontu-hartze batean salbuetsizat jo diren gainerako gastuak ere: etxebizitzaren arloko laguntzak eta eraikuntza sustatzekoak (40,40 milioi) eta pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak, prestazio bermatu moduan araututakoak (152,98 milioi). Halaber, munta txikiko dirulaguntzak (guztira 232,30 milioi) eta zorpetze eragiketak berrikustea.

- Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Kontseiluaren 2022ko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.

- Kontuen Ganberaren beraren 2022ko urteko kontuak auditoretza enpresa baten aztertu ditu.





- Sozietate eta fundazio publikoen 2022ko urteko kontuak eta legeriaren betetzea auditoretzako enpresa pribatuek ikuskatzen dituzte, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiaren tutoretzapean.
- Kontuen Ganberak honako gai hauei dagokien lana egin du edo egiten ari da:
  - a) Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoa.
  - b) Foru Administrazioan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) inplementatzeko hartutako neurriak.
  - c) Itzaleko bidesariaren bitartez emandako kontzesioak (2014-2021).
  - d) Nafarroako Aurrekontu Orokorretako dirulaguntza izendunak (2019-2022).
  - e) Sodenak Parquenasari egindako finantza-ekarpenak (2001-2023).
  - f) Hezkuntza Departamentuan irakasleak aldi baterako kontratatze sistema (2020-2022).
  - g) Egokia al da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrenden kudeaketa? (2018-2022).
  - h) Pandemia garaian ETE, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariorako hitzarmena.
  - i) Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa (Gizain).
  - j) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak, 2022ko ekitaldia.
  - k) Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren kontuak.





### III. Iritzia

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, NFKAren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2022ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, 2022ko aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia. Halaber, aipatu araudiari jarraikiz, 2022an legeria betetzeari buruzko fiskalizazioa egin diegu NFKAri eta haren mendeko entitateei.

#### III.1. 2022ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia

Gure ustez, “Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen ondareari eta 2022ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haien emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere (lege-esparru hori identifikatzen da oroitidazkiko “Foru Komunitateko Administrazioaren kontuen alderdi orokorrak” dokumentuan).

#### III.2. Legeria betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia

Gure ustez, “Legezkotasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean deskribatu ditugun egitateen eraginengatik ez bada eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, NFKAren, haren erakunde autonomoen eta haren sozietate eta fundazio publikoen 2022ko ekitaldiko kontu orokorretan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.







## IV. Iritziaren oinarria

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari eta legeria betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, gure txostenean egiten den kontu orokorreari eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioari dagokionez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorreari buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika baldintzekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat etorritik, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure finantza- eta legezotasun-iritzia emateko.

### IV.1. Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria

a) Ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorrean jasota dauden kontu, irizpide eta printzipioak, nagusiki zergen, tributu-zordun eta -hartzekodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrez gain, badaude garrantzi txikiagoko akatsak ere kontuen edo atalen sailkapenean; horiek berekin dakarte diru-sarreraren aurrekontuaren, aurrekontu-emaitzaren, diruzaintza-gerakinaren eta balantzearen likidazioeko egoera-orriaren egitura bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako ereduarekin; halaber, ez da aurkeztu ondare garbiaren aldaketan egoera-orririk ez diru-fluxuen egoera-orririk.

b) Ekitaldian jasotako kobrantzei buruz hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman dagoen informazioa ez da behar bezala eskualdatu, eta ezin da bereizi kobrantza horiek ekitaldian sortutako diru-sarrerei edo aurreko urteetan sortutakoei dagozkien. Horregatik, baliteke beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak egoeta 1. eta 2. kapituluetakako diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orririko diru-bilketa garbian.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintza-gerakinetik kobratzeko dauden eskubideen atalean eta balantzeko aurrekontu-zordunen atalean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osaeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik.

c) Ez balantzean ez oroitidazkian ez da informaziorik erregistratu NFKAren eta haren erakunde autonomoen funtzionario aktibo eta pasiboen montepioak





sortutako betebeharrak aktuariariek buruz. NFKAk egindako azterlan eta balioespenean arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2023-2087 aldirian izanen den kostuaren egungo balioa 1.572 milioi konstante ingurukoa da.

d) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik “Ibilgetua” ataleko zenbait osagaien kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 1.174,38 milioikoa zen 2022ko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

e) “Aurrekontuak ez diren zordunak” atalean, “Dirulaguntzen aurrerakinengatik zordunak” kontua sartu da; kontu horren saldoa 93,03 milioikoa zen 2022ko abenduaren 31n.

Kontu horretan daude jasota aplikatu beharreko araudiari jarraikiz aurrerakintzat hartzen diren eta onuradunak ondoren justifikatu behar dituen dirulaguntzak. Haren saldoa ezeztatu egin behar da diru-laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, orduan egotziko baitzaio gastua emaitzen kontuari.

Zenbait erregularizazio egin diren arren, ezin izan dugu egiaztatu haren saldoa justifikatutako zenbatekoan ala justifikatu gabeko zatian murriztu ote den. Hortaz, ezin dugu zehaztu balantzeko saldo hori zuzena den. Akats hori jada agerian jarri zen Ganbera honek 2021eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egin zuen txostenean.

Ganbera honek ohartarazten du behin eta berriz agertu direla a), b), c) eta d) salbuespenak, erakunde honek 1981eko NFKAren urteko kontuak lehen aldiz ikuskatu zituenetik. Nahiz eta ahalegin handia egin den b) eta d) letretan adieraziko akatsak konpontzeko, horiek ezin izan dira guztiz konpondu honako txosten hau egin den datarako.

#### IV.2. Legezatasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria

NFKAko departamentuek Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioaren arabera, 2. kapituluko –ondasun eta zerbitzuak– gastu arruntaren ehuneko 30 (251,03 milioi), 6. kapituluko –inbertsioak– 9,43 milioi eta 4. kapituluko –transferentzia arruntak– 203.428 euro dagozkie indarraldia amaituta daukaten edo kontratu-euskarri ezagunak ez duten kontratuetan oinarrituta ordaindu diren prestazioei.

#### V. Auditoretzako funtsezko gaiak

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorreari egin diegun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorren osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko gai horien gaineko iritzirik.





Txosten honetako “Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria” atalean eta “Legezkotasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inongo gairen berririk ematen.





## VI. Azpimarra egiteko paragrafoa

Kontu orokorretako oroitidazkian jasotako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Egoera ekonomiko-finantzarioaren adierazle gehienek 2021eko aldean bilakaera positiboa izan dute, “Finantza- eta ondare-adierazleen azterketa” dokumentuak erakusten duenez. Hala ere, 2020ko eta 2021eko ekitaldietan COVID-19aren pandemiak erabateko edo hein bateko eragina izan zuenez, 2019ko ekitaldia ere jaso dugu paragrafo honetan, adierazle esanguratsuenen bidez konparazio homogeenago bat islatu eta bere testuinguruan kokatu ahal izateko. Datuak honako hauek dira:

(milakotan)

Adierazleak	2019	2020	2021	2022	2022/2019 aldea (%)
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	150.863	-203.016	468.645	303.857	101
Aurrezki gordina	496.971	152.785	666.714	553.565	11
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	412.051	355.070	681.369	425.108	3
Aurrezki garbia	84.920	-202.286	-14.655	128.457	51
Tributuen diru-bilketa likidua	3.941.132	3.627.079	4.170.391	4.979.457	26
Finantza-zorra *	2.961.088	3.310.603	2.847.893	2.867.732	-3
Zorraren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean	71	82	60	54	-24

\*Kostu amortizatuarekin baloratua.

- “Hitzarmen Ekonomikoko fluxuak” dokumentuan dagoen informazioa. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikotik 2022an eratorritako finantza-fluxuak bi administrazioen artean sinatutako zenbait akordioen aplikazioak baldintzatu ditu 2022an. Negoziazio Batzordearen 2021eko abenduaren 20ko eta 2022ko ekainaren 10eko erabakien ondorioz urriaren 19ko 22/2022 Legea onetsi zen, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 26ko 28/1990 Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.

Azpimarratzen dugu lege-aldaketa horretan 2020-2024 bosturtekorako metodologia berria ezarri dela bai Estatuarentzako ekarpenaren kalkuluan, bai zenbait zergari dagozkien doikuntza fiskaletan. Metodologiaren aldaketa horrek, gainera, 2022ko ekitaldian aurreko ekitaldien erregularizazioa eragin du, zeinak ondorioak sortu baititu bai gastuen aurrekontuan (143,84 milioi gehiago gastuan) bai diru-sarreraren aurrekontuan (281,68 milioi gehiago diru-sarreretan).





## VII. Beste gai batzuei buruzko paragrafoa

• 2022ko ekitaldiaren itxieran, *Next Generation* funtsetako diru-sarreraren eta gastuen betetzea honako hau zen:

(milakotan)

<i>Next Generation</i> funtsetako gastuak eta diru-sarrerak	2020	2021	2022	Guztira, 2022/12/31
<b>Gastuak</b>	<b>41</b>	<b>4.218</b>	<b>59.685</b>	<b>63.944</b>
Arruntak		1.906	17.507	19.412
Kapitalekoak	41	2.312	42.178	44.532
<b>Diru-sarrerak</b>	<b>5.510</b>	<b>174.571</b>	<b>191.940</b>	<b>372.021</b>
Arruntak		49.968	36.088	86.056
Kapitalekoak	5.510	124.603	155.852	285.965

Proiektuei lotutako aurrekontuko gastuak ez dira funts horiek jaso ahala betetzen, beste erritmo batean baizik. Horregatik, garatzeko fasean dauden proiektuei dagozkien gastuak baino diru-sarrera handiagoak aitortzen ari dira urtez urte. Finantzaketa-desbideratze horien berri ematen da bai aurrekontu-emaitzan bai diruzaintza-gerakinean.

• Beste alde batetik, Ganbera honek azpimarratzen du Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko gure fiskalizazio txostenek behin eta berriz agerian jartzen dutela egoera endemiko bat. Hain zuzen, kontratuaren indarraldia amaituta ere interes publikoagatik ematen jarraitzen diren prestazioekin zerikusia duten aurrekontu-gastuen egoeraz ari gara. Prestazio horiek behar bezala funtzionatzeari utzi ezin dioten zerbitzu publikoei eragiten diete.

Zalantzarik gabe, ia administrazio publiko guztiek dute arazo hori, eta Nafarroan ez da konpondu Kontratuari buruzko Foru Legearen 45.3 artikulua aldaketaren bidez. Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legeak egin zuen aldaketa hori, eta honela dio:

*“Baldin eta, kontratu baten muga-egunean, aurreikusi ezin diren gertaeretik eratorritako gorabeheren ondorioz, formalizatu ez bada prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria eta interes publikoko arrazoiak badaude hura ez eteteko, jatorrizko kontratua gehienez bederatzi hilabetez luzatzen ahalko da, gainerako baldintzak aldatu gabe, harik eta kontratu berria gauzatzeko hasi arte, baldin eta azken horren lizitazio-iragarkia hiru hilabete lehenago argitaratu bada, gutxienez, jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino, edo, gonbidapena duten prozeduren kasuan, hura hamabost egun lehenago bidali bada”.*

Egia esan, muga-egunera iritsi den kontratu bateko prestazioak interes publikoagatik ematen jarraitzea justifikatzen duten askotariko inguruabarrek bederatzi hilabeteko aldi hori igaro ondoren iraun ohi dute, eta legearen aurreikuspen





horrek ez du konpontzen kontratuaren babesik gabe egindako prestazioen ordainketaren arazoa.

Gainera, begi bistakoa da ordainketa hori nahitaezkoa dela, prestazioak gauzatu direlako eta Administrazioak berak behartu duelako kontratista prestazioak ematera. Ordainketa hori justifikatzeko, izen bereziki deigarria duen erakunde zibil bat baliatu izan da: aberaste bidegabe edo kausagabea. Zuzenbide pribatuan sortutako figura da, eta honelako egoerei konponbidea emateko sartu da Administrazio Zuzenbidean.

Funtsean, kontratista batek kontratua azkendu eta gero egindako kontraprestazioen ordainketa da gehienetan justifikatu nahi dena. Hortik aurrera, ordea, era guztietako inguruabarrak eta egoerak topa ditzakegu, eta ezin dira denak berdin hartu.

Gure iritziz, horrelakoetan, egindako prestazioengatik ordaindu beharra ezbaierik gabekoa bada, nahiz eta luzapen bereziaren bederatzi hilabeteko epea gainditu, arau bidez aurreikusi behar lirateke ordainketa horretarako kasuak eta bete beharreko prozedura, erakunde zibil batera jo beharrik izan gabe. Alegia, zilegi da aberaste bidegabe edo kausagabearen erakundea erabiltzea zor den ordainketa justifikatzeko, baina zentzuzkoena da Administrazio Zuzenbideko araudi berarizkoaren bidez erantzutea horrelako egoerei. Araudi horrek aurreikusi behar du zer egoera gertatu eta zer betekizun bete behar diren kontratua amaitutakoan egin diren prestazioen ordainketa baimendu ahal izateko.

Azaldutakoa dela-eta, Ganbera honek gomendatzen du arau-aldaketa bat izapidetu dadila eta bertan jaso dadila zer kasu, baldintza eta izapide jotzen diren beharrezkotzat hirugarrenek kontratua amaitutakoan egindako prestazio horien ordainketa baimentzeko. Horrela bizkortu egingen litzateke nahitaezko ordainketa hori, segurtasun juridikoa emanen litzaieke halako egoerei eta kasuak beren inguruabarren arabera bereizi ahalko lirateke. Aldaketa hori jaso daiteke 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.





## VIII. Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Bermatu beharko du, halaber, aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Haren erantzukizuna da, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontrolko sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorretan iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urrazterik ez dagoela.

Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuak onetsi zuen 2023ko ekainaren 28an egindako bilkuran, eta Nafarroako Parlamentura igorri zen. Parlamentuko Mahaiak erabaki zuen proiektua Kontuen Ganberara igortzea aztertzeko eta zer zeritzon adierazteko; idazkia 2023ko irailaren 5ean sartu zen erakunde honetan.





## IX. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, kontu orokorretan, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, arauzkotasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Akatsak iruzur edo errore baten ondorio izan daitezke, edo legeria ez betetzearen ondorio. Akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaile diren pertsonen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiarekin bat etorritik, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritzari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea aplikatu diren kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, kontabilitate-estimazioak egokiak diren, bai eta egoki den kudeaketa-organok emandako informazioa ere.

- Kontu orokorren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horiek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontrolako edozein akats munta-







dun ere. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan funtsezko izan diren gaiak.





## X. Aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek bete dira edo betetzen ari dira fiskalizatutako ekitaldian:

- a) *Oroitidazkian BEZ orokorra izeneko kontuari buruzko informazioa ematea.*
- b) *Larrialdia dela-eta izapidetu diren kontratazio-espeditente guztiak formalizatzea eta Kontratazioaren Atarian argitaratzea.*
- c) *Dirulaguntzen aurrerakinengatiko zordunak egoki kudeatzeko prozedura homogeneo bat prestatzea, balantzean zorren zenbateko zuzena jaso ahal izateko.*

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

- a) *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*
- b) *NZOren kontabilitate-sistemak egokitzea, horren bidez diru-sarreraren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.*
- c) *Balantzean islatzea montepioaren araubidekoak diren foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak.*
- d) *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*
- e) *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren eskakizunak betez.<sup>1</sup>*
- f) *Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea<sup>2</sup>.*

---

<sup>1</sup> Gomendio hau hein batean bete da, txosten honen 5.7 gehigarrian zehazten den bezala.

<sup>2</sup> Gomendio hau hein batean bete da, txosten honen 5.7 gehigarrian zehazten den bezala.





g) *CAT aplikazioa aldatzea zerga-bilketari buruzko datuak lortzeko. Datu horiek SAPG21 sistema elikatuko dute eta egoera-orri finantzarioak egiteko informazio fidagarria emanen dute; era berean, beste arlo batzuk kudeatzen eta aztertzen lagunduko dute, hala nola iruzur fiskalaren aurkako borroka.*

h) *Aztertzea aukerarik ba ote dagoen kontu orokorren oroitidazkian azterketa sakonago bat jasotzeko onura fiskalen bidez lortu nahi diren helburuei eta horien betetze graduari buruz.*

i) *Kontabilitate Zerbitzuak eta Diru-bilketa Zerbitzuak batera lan egitea ekitaldian sortutako eskubideei dagozkien zergen kobrantzari buruzko informazioa hobetzeko eta kontabilitateko egoera-orrien irudi fidagarriago bat islatzeko.*

j) *Enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezketasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezartzea.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legeria betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 5. gehigarrian (beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan).

Miguel Ángel Aurrecoechea auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak  
digitalki sinatua, alboan adierazitako egunean)*



**1. gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen laburpena, 2022ko ekitaldia<sup>3</sup>****2022ko aurrekontuaren likidazioa****2022ko gastu-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka**

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetze ehunekoak	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.586.137	46.289	1.632.425	1.609.608	99	1.609.570
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	849.844	21.373	871.217	827.285	95	784.393
Finantza-gastuak	57.065	-1.132	55.933	43.679	78	43.669
Transferentzia arruntak	1.781.281	595.297	2.376.578	2.298.909	97	2.246.747
Kontingentzia funtsa	5.430	-4.319	1.111	0	0	0
Inbertsio errealak	222.890	32.343	255.233	198.290	78	164.816
Kapital-transferentziak	264.388	50.719	315.107	207.426	66	171.810
Finantza-aktiboak	35.914	540	36.454	33.888	93	33.888
Finantza-pasiboak	470.179	0	470.179	381.429	81	381.429
<b>Guztira</b>	<b>5.273.127</b>	<b>741.111</b>	<b>6.014.237</b>	<b>5.600.514</b>	<b>93</b>	<b>5.436.321</b>

**2022ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka**

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetze ehunekoak	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	2.146.379	359.475	2.505.854	2.628.572	105	2.647.536
Zeharkako zergak	2.012.056	0	2.012.056	2.281.878	113	2.303.851
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	111.759	11.826	123.585	156.745	127	117.667
Transferentzia arruntak	118.748	200.266	319.014	216.900	68	214.455
Ondare bidezko diru-sarrerak	6.848	1.638	8.485	5.260	62	4.890
Inbertsio errealen besterentzea	70	1.686	1.756	2.775	158	2.775
Kapital-transferentziak	127.309	33.048	160.357	196.914	123	174.192
Finantza-aktiboak	38.245	133.172	171.417	21.333	12	20.113
Finantza-pasiboak	711.713	0	711.713	406.190	57	406.190
<b>Guztira</b>	<b>5.273.127</b>	<b>741.111</b>	<b>6.014.237</b>	<b>5.916.566</b>	<b>98</b>	<b>5.891.669</b>

<sup>3</sup> Gure txostenak Nafarroako kontu orokorren 2022ko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginga. Testu osoa hemen kontsulta daiteke:

<https://www.navarra.es/eu/nafarroako-gobernua/kontu-orokorrak>





## 2022ko aurrekontu-emaizta

(milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	5.289.354	4.779.480	509.874
2. Kapital-eragiketak	199.689	405.716	-206.027
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	21.333	33.888	-12.555
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta	5.510.376	5.219.084	291.292
II. Finantza-pasiboen alde garbia	406.190	381.429	24.761
<b>III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa</b>			<b>316.053</b>
4. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako betebeharrak aitortuak			23.629
5. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			184.989
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			229.400
<b>V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)</b>			<b>295.271</b>

## Diruzaintza-gerakina 2022ko abenduaren 31n

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>228.509.017</b>
Diru-sarreraren aurrekontua, aurtengo ekitaldia	950.382.419
Diru-bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	-609.673.108
Aplikatzeko dauden partidengatiko gutxiagotzea	-53.243.878
Aplikatzeko dauden partidengatiko gutxiagotzea (CAT)	-64.133.949
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	8.171.004
Diru-bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	-7.220.531
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	4.455.076
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-228.016
<b>- Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>340.672.051</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	309.094.015
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	102.591
Aurrekontuz kanpoko gastuak	31.475.445
<b>+ Funtz likidoak</b>	<b>721.877.642</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira (1)</b>	<b>609.714.608</b>
Toki Ogasunen Funtzari atxikitako diruzaintza-gerakina	22.258.969
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	457.312.587
PFEZaren % 0,7ari atxikitako diruzaintza-gerakina	1.559.309
Diruzaintza-gerakina: Hondakinen Funtza	14.885.457
<b>Atxikitako diruzaintza-gerakina (2)</b>	<b>496.016.321</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1) – (2)</b>	<b>113.698.287</b>





## Egoeraren balantzea 2022ko abenduaren 31n

(eurotan)

Aktiboa	2022ko ekitaldia	2021eko ekitaldia
<b>A) Ibilgetua</b>	<b>2.994.265.265</b>	<b>2.877.216.763</b>
<b>II. Ibilgetu ez-materiala</b>	<b>55.053.462</b>	<b>26.359.440</b>
3. Aplikazio informatikoak	43.849.120	20.801.530
4. Bestelako ibilgetu ukiezina	11.204.341	5.557.910
<b>III. Ibilgetu materialak</b>	<b>2.252.270.103</b>	<b>2.182.126.848</b>
1. Lursailak eta eraikinak	1.098.303.645	1.162.817.892
2. Instalazio teknikoak eta makineria	85.493.072	83.004.552
3. Tresneria eta altzariak	487.169.483	464.271.720
4. Bestelako ibilgetua	343.014.537	328.794.636
5. Azpiegiturak	202.657.732	113.593.089
6. Aribideko ibilgetua	14.018.325	12.493.037
7. Ondare historikoko ondasunak	21.613.309	17.151.924
<b>IV. Ondasun higiezinak inbertsioak</b>	<b>21.176.329</b>	<b>21.858.268</b>
1. Lursailak	76.747	76.747
2. Eraikuntzak	21.099.583	21.781.521
<b>V. Finantza-inbertsio iraunkorrak</b>	<b>665.765.371</b>	<b>646.872.207</b>
1. Epe luzeko baloreen zorroa	559.187.256	550.187.256
2. Epe luzeko bestelako inbertsio eta kredituak	107.519.062	97.625.898
4. (Hornidurak)	-940.947	-940.947
<b>C) Aktibo zirkulatzailea</b>	<b>1.222.380.678</b>	<b>768.144.126</b>
<b>0. Salgai dauden aktiboak</b>	<b>18.347.957</b>	<b>18.408.254</b>
<b>I. Izakinak</b>	<b>22.018.741</b>	<b>21.527.255</b>
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	22.018.741	21.527.255
<b>II. Zordunak</b>	<b>459.882.205</b>	<b>397.595.388</b>
1. Aurrekontuko zordunak	979.416.301	930.126.155
2. Aurrekontuko ez diren zordunak	93.117.690	64.389.005
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak adminis- tratzeagatiko zordunak	3.417.403	3.221.237
5. Bestelako zordunak	6.322.284	6.162.913
6. (Hornidurak)	-622.391.473	-606.303.922
<b>III. Aldi baterako finantza-inbertsioak</b>	<b>254.133</b>	<b>300.789</b>
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	232.996	287.102
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	21.137	13.687
<b>IV. Diruzaintza</b>	<b>721.877.642</b>	<b>330.312.439</b>
<b>Aktiboa, guztira (A+C)</b>	<b>4.216.645.943</b>	<b>3.645.360.889</b>





Ondare garbia eta pasiboa	2022ko ekitaldia	2021eko ekitaldia
<b>A) Funts berekiak</b>	<b>837.893.636</b>	<b>438.564.865</b>
<b>I. Ondarea</b>	<b>-145.921.497</b>	<b>272.135.631</b>
1. Ondarea	-145.921.497	272.135.631
<b>III. Aurreko ekitaldiko emaitzak</b>	<b>508.932.782</b>	<b>-418.057.128</b>
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	508.932.782	-418.057.128
<b>IV. Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>473.892.739</b>	<b>584.220.410</b>
<b>V. Egozteko dagoen ondare-gehikuntza</b>	<b>989.612</b>	<b>265.952</b>
<b>C) Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>2.633.217.899</b>	<b>2.594.053.595</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>1.060.323.073</b>	<b>1.056.951.777</b>
1. Obligazioak eta bonuak	1.060.323.073	1.056.951.777
<b>II. Epe luzeko bestelako zorrak</b>	<b>1.572.894.826</b>	<b>1.537.101.818</b>
2. Bestelako zorrak	1.572.494.691	1.536.700.582
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	400.134	401.237
<b>D) Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>745.534.408</b>	<b>612.742.428</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>245.789.277</b>	<b>265.115.342</b>
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	134.685.856	156.359.508
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	111.103.421	108.755.834
<b>III. Hartzekodunak</b>	<b>499.745.130</b>	<b>347.627.086</b>
1. Aurrekontuko hartzekodunak	350.899.248	177.375.572
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak adminis- tratzeagatiko hartzekodunak	11.347.816	9.165.801
4. Administrazio publikoak	4.974.346	4.795.733
5. Bestelako hartzekodunak	125.196.598	148.926.564
6. Epe laburrerako jasotako fidantzak eta gordailuak	7.327.121	7.363.416
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)</b>	<b>4.216.645.943</b>	<b>3.645.360.889</b>





## 2022ko emaitzen kontua

(eurotan)

Zor	2022ko ekitaldia	2021eko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornigaiak	339.511.483	340.032.587
b) Ekitaldiko kontsumoak	339.511.483	340.032.587
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	2.172.637.581	2.079.856.360
a) Langile-gastuak	1.502.350.247	1.448.307.540
a.1) Soldatak eta ordainsariak	1.240.589.860	1.194.610.807
a.2) Gizarte-zamak	261.760.387	253.696.733
b) Gizarte-prestazioak	109.177.835	102.321.450
d) Trafiko horniduretako aldeak	16.087.551	35.056.683
d.1) Horniduren eta kobraezinak diren kredituengatiko galeren alorre izandako aldea	16.087.551	35.056.683
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	486.555.398	408.882.069
e.1) Kanpoko zerbitzuak	482.178.475	404.211.390
e.2) Tributuak	93.283	110.622
e.3) Askotariko gastuak	4.283.640	4.560.058
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	41.914.137	69.310.009
f.1) Zorreatik	41.914.137	69.310.009
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	-	-
h) Ibilgetuaren amortizazioa	16.552.414	15.978.609
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	2.484.962.373	1.883.758.429
a) Transferentzia arruntak	2.278.519.655	1.738.957.553
c) Kapital-transferentziak	206.442.718	144.800.876
5. Ezohiko galera eta gastuak	33.261.999	16.080.131
c) Ezohiko gastuak	3.285.636	1.490.413
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	29.976.363	14.589.718
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)	473.892.739	584.220.410
Zor, guztira	5.504.266.175	4.903.947.917







Hartzeko	2022ko ekitaldia	2021eko ekitaldia
(eurotan)		
B) Diru-sarrerak		
<b>1. Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak</b>	<b>4.941.370.536</b>	<b>4.200.413.802</b>
<b>a) Tributu bidezko diru-sarrerak</b>	<b>4.926.691.155</b>	<b>4.187.868.145</b>
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	2.146.468.069	1.646.416.737
a.2) Sozietateen gaineko zerga	369.547.201	320.390.489
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	68.345.325	56.408.102
a.4) Ondarearen gaineko zerga	31.768.065	36.501.187
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	12.443.009	41.728.144
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	83.257.229	83.131.284
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.616.899.293	1.461.282.985
a.11) Zerga bereziak	581.721.052	530.232.231
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	50.440	34.723
a.15) Zerbitzuak emateko tasak	16.191.472	11.742.264
<b>b) Kotizazio sozialak</b>	<b>1.031.769</b>	<b>1.200.445</b>
<b>c) Zerbitzu-emateak</b>	<b>13.647.612</b>	<b>11.345.212</b>
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	13.647.612	11.345.212
<b>2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>129.442.107</b>	<b>130.734.194</b>
<b>a) Diru-itzulketak</b>	<b>14.681.751</b>	<b>21.359.594</b>
<b>b) Salmentak eta zerbitzu-emateak</b>	<b>55.730.148</b>	<b>48.420.977</b>
<b>c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>47.510.996</b>	<b>45.895.580</b>
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste	47.510.996	45.895.580
<b>f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk</b>	<b>11.519.213</b>	<b>15.058.044</b>
f.1) Beste interes batzuk	11.519.213	15.058.044
<b>3. Transferentziak eta dirulaguntzak</b>	<b>421.633.342</b>	<b>570.446.830</b>
a) Transferentzia arruntak	220.038.880	380.750.800
b) Kapital-transferentziak	201.594.462	189.696.030
<b>5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	<b>11.820.190</b>	<b>2.353.091</b>
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	125.258	300.187
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	11.694.932	2.052.904
<b>Saldo zorduna (desaurrezkoa)</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Hartzeko, guztira</b>	<b>5.504.266.175</b>	<b>4.903.947.917</b>





## 2. gehigarria. Nafarroako foru sektore publikoaren zedarritzea

Foru sektore publikoaren 2022ko zedarritzea bi ikuspuntutatik aztertzen da:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen arabera.
- Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren (AEFILO) arabera.

### 2.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera.


Honako hauek dira 2022an foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- NFKA eta hari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak, hau da, Kontuen Gambera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean (NOFL) ezarritakoari jarraikiz.
- NFKAk eta haren organismo publikoek sortutako fundazio publikoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.





Hauxe zen foru sektore publikoaren 2022ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa, kontu orokorretako oroitidazkiaren arabera:





Aurreko grafikoa aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2022ko abenduaren 31n NFKAk 13 departamentu zeuzkan, eta horiei hamar erakunde autonomo zeuden atxikita.
- 2022ko maiatzean Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa martxan jarri zen, haren zuzendaria izendatuta. Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legeak dioenez, zuzenbide publikoko entitatea da, nortasun juridiko berekia du eta, bere eskumenak betetzean, administrazio publikoengandiko erabateko independentzia organiko eta funtzionalarekin jarduten du.

Hala ere, azpimarratu behar dugu 2022ko ekitaldian ez dela zuzendaria beste egiturarik izan Bulegoan. Beraz, organo horri dagozkion gastuak zuzenean kontabilizatu dira Nafarroako Aurrekontu Orokorretan transferentzia arruntetarako onetsi zen partidan.

Geroagoko gertaera hau aipatu behar dugu: Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legeak, batetik, Bulegoaren aurrekontu berariazkoa eta bereizia aurreikusten du, eta bestetik, aldatu egiten du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, Bulegoa 2023an foru sektore publikoko entitateen multzoan sartzeko.

- Aipatu egunean NFKAk partaidetza gehiengoduna zuen 17 enpresaren kapitalan, eta horiei beste sozietate bat gehitu zaie: 2022an sortutako Nafarroako Inbertsio Institutua SLU sozietate publikoa (INI). Era berean, NFKAk zuzenean parte hartzen zuen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLU (NEKP) enpresan, zeinean kapitalaren % 100 baitzeukan, eta zeharka, berriz, NEKPren birtatez, honako 16 entitate hauetan:

Enpresa publikoa	NEKPren ehunekoa	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Ikaskuntza Integralerako Nafarroako Zentroa SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA (NIK)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (Intia)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Nafarroako Inbertsio Institutua SLU (INI)	100	Enpresei finantza baliabideak ekartzea
Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Gaikako azpiegiturak eta kultura-, aisia- eta kirol-azpiegiturak
Navarra de Infraestructuras Locales SA (Nilsa)	100	Tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (Nasertic)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (Nasuvinsa)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SAU (Posusa)	100	Ingurumen jarduera, eta industria ehundura berrosatzea
Nafarroako Garapen Sozietatea SL (Sodena)	100	Enpresak garatzeko inbertsio- eta finantzaketa-jarduerak
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	100	Katastroa, kartografia
Tracasa Instrumental SL	100	Katastroa, kartografia
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta deribatuak ekoiztea eta merkaturatzea





Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresak sustatu eta bultzatzea
-----------------------------	-------	---------------------------------

• NFKAren fundazio publikoak 2022ko abenduaren 31n sei ziren, honako xehetasun honen arabera:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioa sustatzea
Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Fundazioa	Desgaitasuna duten helduei laguntzeko neurriak
Miguel Induráin	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan
Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Fundazioa-Gizain	Hainbat gizarte-zerbitzu publiko kudeatzea, eta zerbitzu horiek zuzenean eman eta gauzatzea

Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen ekonomia- eta langile-datu nagusiak, 2022ko abenduaren 31n, kontu orokorren oroitidazkian zabaldua eta iruzkinduta, honako hauek dira:

• Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa:

	Zenbatekoa (milakotan)
Aitortutako eskubideak	5.916.577
Aitortutako betebeharrak	5.600.514
	Pertsona kopurua
Langileak 2022ko abenduaren 31n	31.826

• Sozietate publiko bateratuak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

	Ekitaldiko emaitza	Foru Administrazioaren dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kop.
Datu bateratuak	-19.493	18.939	47.844	667.324	1.495

• Fundazioak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Fundazioak	Emaitza, guztira	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kop.
Guztira sei fundazio publiko	1.478	4.913	331

• Beste entitate batzuk:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Erakundea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Foru Ogasunari itzulitako gerakina	Langileak, 2022/12/31
Nafarroako Parlamentua	15.018.901	12.545.528	2.591.076	74
Kontuen Ganbera	2.948.351	2.928.205	297.311	35
Arartekoa	873.747	865.725	8.022	9
Nafarroako Kontseilua	391.064	293.597	97.467	2





## 2.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera

AEFILOk ezartzen du Administrazioaren sektore publikoa Kontuen Sistema Europarreko (KSE 2010) irizpideen arabera zedarritu behar dela. Horrenbestez, honako hauek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektorea:

- NFKA eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa entitate publikoa.
- Iruñerriko Abiadura Handiaren Partzuergoa entitate publikoa.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- Nafarroako Kontseilua.

• Foru Komunitateko sozietate publikoak, gehienbat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak edo ondasunak ematen edo sortzen dituztenak. Zehazki, 2022rako, hurrengo 15 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikoen sektoretzat: NEKP, CNAI, CEIN, CAT, NIK, INTIA, NICDO, NASERTIC, NILSA, SODENA, TRACASA, TRACASA Instrumental, START UP, POSUSA, Lekunberriko Esnekari Erakundea SA<sup>4</sup> eta Caviar Per Se; azken hori likidazioan dago.

• Honako fundazio hauek: Baluarte Fundazioa, Nafarroako Ondare Historikoen Kontserbaziorako Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioa, CENER Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Fundazioa, Nafarroako Osasun Ikerkuntzarako Institutua Fundazioa, Miguel Induráin Fundazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Unibertsitate-Gizarte Fundazioa, Julián Gayarre Fundazioa, Jorge Oteiza Museoa Fundazioa, Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioa eta Gizain-Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa.

---

<sup>4</sup> Sozietate hau ez dago sartuta kontu orokorretan; Administrazio Publikoarekin duen lotura edo mendekotasunagatik, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 549/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako irizpideak aplikatuta, administrazio publikoen sektorean sartu behar da, IGAEn 2022ko abenduaren 15eko sektorizazio-txostenaren arabera.





Horri dagokionez, Ministroen Kontseiluak, 2020ko otsailaren 11n, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak egokitu zituen administrazio publiko guztientzat, eta urte horretarako ehuneko 0,2ko defizit helburua ezarri zuen autonomia erkidego guztientzat.

COVID-19ak eragindako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiaren ondoren, Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula aktibatzea onartu zuten 2020ko martxoan. Aktibazio horri esker, Europar Batasuneko estatu kideek atzeratu eta eten egin dezakete krisiaren aurretik finkatutako bateratze fiskalaren bidea.

Erabaki horren ondorioz, Kongresuaren Osoko Bilkurak 2020-2021 aldirako egonkortasunari, zor publikoari eta gastu-arauari buruzko hiru zerga-arauen aplikazioa etetea erabaki zuen 2020ko urrian. Gero, etenaldi hori 2022ko eta 2023ko ekitaldietara luzatu zen, Diputatuen Kongresuaren 2021eko irailaren 13ko eta 2022ko irailaren 22ko erabakien bitartez, hurrenez hurren.

2022ko kontu orokorren oroitidazkiak dakarrenez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa Koordinatzeko Batzordeak erabaki zuen, 2021eko abenduaren 20an, berrestea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Ogasuneko Estatu Idazkaritzaren eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren artean 2022rako erreferentziako defizit-tasei buruz sinatutako akordioa, zeina zehatz azaltzen baitugu txosten honen 5.3 gehigarrian.





### 3. gehigarria. Arau-esparrua

Honako hauek osatzen dute, funtsean, 2022an NFKAri aplikatzekoa den arau-esparrua:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- 28/1990 Foru Legea, abenduaren 26koa, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 549/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseilua-rena, 2013ko maiatzaren 21ekoa, Europar Batasuneko kontu nazional eta esku-alde-kontuen sistemari buruzkoa (KSE 2010).
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, autonomia erkidegoen eta toki erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei buruzkoa.
- 2015eko irailaren 9ko Ebazpena, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen zuhurtasun finantzarioaren printzipioa, finantza-aktiboak edo abal, berribal nahiz bestelako berme publikoak edo aurrekontutik kanpoko laguntza neurriak xede dituzten finantza-eragiketei dagokienez.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen eta toki entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.
- 2017ko abenduaren 5eko Ebazpena, Altxorraren Zuzendaritza Nagusiarena, 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina eguneratzen duena; uztailaren 4ko ebazpen horren bidez definitzen da autonomia erkidegoen eta toki entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.
- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa.
- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.







- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako ondareari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.
- 18/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira egonkortze prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- 944/2012 Foru Agindua, azaroaren 9koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, Fakturen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duena.
- 109/2022 Foru Agindua, urriaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Aurrekontu Orokorrak eta Balantze Kontuak ixteko eta likidatzeko arauak, 2022ko ekitaldirako, bai eta 2023ko ekitaldikoak irekitzeko arauak ere.



## **4. gehigarria. Salbuespenei buruzko informazio gehigarria**

### **4.1. CAT-SAP sistemen integrazioa**

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ahaleginak egin dituen arren, oraindik ere arazoak daude, CATen informazio egokia falta delako SAPGE21ek diru-bilketa garbia egoki islatu ahal dezan kontabilitatean. Izan ere, ez ditu bereizten uneko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubideek sortutako kobrantzak. Gainera, CATeko datu horiek ez dute aukerarik ematen kobrantzen zenbatekoak printzipalaren, errekaruen eta interesen artean banatzeko.

Hori dela-eta, CATek ematen duen informazioarekin Hitzarmen Ekonomikoren, Analisi Fiskalen eta Administrazioaren Zerbitzuak egiten duen txostenean uneko ekitaldiko kobrantzei dagokien zenbatekoa azaltzen da, baina ez da bereizten kobrantza horiek uneko urtean edo aurreko urteetan sortutako eskubideetatik datozen. Zifra hori erabiltzen du NFKAren Kontabilitateko atalak aurrekontuaren likidazioan islatutako zerga bakoitzaren bilketa garbia lortzeko.

Aurrekoaz gain, CAT sistemak ez du ematen nahikoa informaziorik zergen kontabilitatea behar bezala islatzeko aurrekontu-likidazioan eta egoeraren balantzean. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldietako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitortutako eskubideak, zorraren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpideez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ezta sorrarazi gabeko errekaruak eta interesak ere.

### **4.2. Zerbitzuak ematea kontratu-euskarri egokirik gabe**

Ganbera honek 2018tik 2021era bitarteko ekitaldietako kontu orokorreari buruz egindako txostenek salbuespen bat jaso zuten, kontratu-euskarri gabe emandako zerbitzuekin lotutako aurrekontu-gastuak egiteari zegokiona. Egoera horren jarraipena egin dugu, departamentuek Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioarekin.



Zehazki, eta informazio horren arabera, honako hauek dira 2022an eta kontratuen amaieratik 2022ko abenduaren 31ra arte egoera horretan ordaindutako prestazioei buruzko datuak<sup>5</sup>:

Departamentua	2022an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2022-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratuen kop.	Kontratu-euskarririk gabeko gastuaren hasiera-data, gutxienez
Osasuna	84.717.821	326.098.089	66	2017/01/01
Eskubide Sozialak	41.744.845	65.914.488	37	2015/04/16
Hezkuntza	12.561.722	18.364.117	9	2021/01/01
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	10.833.662	19.971.813	10	2021/01/01
Lurralde Kohesioa	2.734.617	16.312.972	37	2014/01/01
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	1.001.561	57.972	5	2020/12/16
Kultura eta Kirola	396.968	421.553	8	2020/12/01
Migrazio Politikak eta Justizia	342.794	523.196	3	2021/02/15
<b>Guztira</b>	<b>154.333.989</b>	<b>447.664.200</b>	<b>175</b>	

Bistan denez, egoera horretan dauden 175 prestazioren kontratua amaitu zenetik 2022ko abenduaren 31ra arte metatutako gastua 447,66 milioi eurokoa da, eta horietatik 154,33 milioi ordaindu ziren 2022an Gobernuaren erabakien bidez.

Kontratuaren indarraldia amaitua duten prestazio horiek ordaintzea eragin duten arrazoiak askotarikoak dira, eta bat datoz NFKAren aurreko ekitaldietako kontu orokorrei buruzko txostenean adierazi genituenekin (espedienteen hasiera atzeratzea, aurkeztutako errekursoak eta abar).

Osasun Departamentuari dagokio gasturik handiena, bai 2022koa, bai kontratua amaitu zenetik metatua: 84,72 eta 326,10 milioi, hurrenez hurren, 66 prestazio ordaintzeko, guztira.

Aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude jasota O-NOZek zenbait hornidura sanitario eta farmakotan egindako gastuei buruzko datuak. Gastu horiek aurretiazko fiskalizaziotik salbuetsita daude eta ez dira aurkezten Gobernuaren erabakietarako. Dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu euskarririk ez izan arren ordaintzen ari dira. Kontzeptu horiei lotutako gastua 116,23 milioikoa izan zen 2022an.

Bestalde, Eskubide Sozialetako Departamentuan, Hezkuntza Departamentuan eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan ere gastua esanguratsua izan da, hurrenez hurren 41,75, 12,56 eta 10,83 milioikoa 2022an.

<sup>5</sup> Aipatutako gastutik, 2022an, 9,43 milioi aurrekontuaren 6. kapituluaren kontabilizatutako prestazioak dira, eta 203.428 euro aurrekontuaren 4. artikuluan kontabilizatutakoak. Gainerako gastua aurrekontuaren 2. kapituluari dagokio.





Beheko taulak egoera horretan ordaindutako gastuaren eta hari dagozkion kontratuen kopuruaren bilakaera erakusten du 2021-2022 aldian:

Departamentua	Ordaindutako gastua			Kontratu kop.		
	2021	2022	2021/2020 aldea (%)	2021	2022	2022/2021 aldea (%)
Osasuna	78.138.22	84.717.821	8	59	66	12
Eskubide Sozialak	20.347.363	41.744.845	105	34	37	9
Hezkuntza	6.485.746	12.561.722	94	35	9	-74
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	9.846.02	10.833.662	10	13	10	-23
Lurralde Kohesioa	4.340.00	2.734.617	-37	11	37	236
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	1.002.89	1.001.561	0	8	5	-38
Kultura eta Kirola	174.34	396.968	128	8	8	0
Migrazio Politikak eta Justizia	180.40	342.794	90	3	3	0
	120.618.453	154.333.989	28	173	175	1

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 2022an ordaindutako gastu osoa (154,33 milioi) ehuneko 28 hazi da (120,62 milioi) 2021. urtearekin alderatuta.

- Oro har, departamentu guztiek ordaindutako gastua handitu egin gutxi-asko, salbu eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarena eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuarena.

Nabarmenki hazi dira Eskubide Sozialetako Departamentuaren gastua (21,40 milioi), Osasun Departamentuarena (6,58 milioi) eta Hezkuntza Departamentuarena (6,08 milioi).

- Egoera horretan ordaindutako prestazioen gutzizko kopurua ia ez da aldatu 2021etik 2022ra (175 prestazio, eta 2021ean 173).

Aurreko gutzia ikusita, eta kontuan hartuta departamentuek emandako datuak direla eta ez dugula aztertu egoera horretan gastu gehiago egon ote daitekeen, 2022an 260,66 milioikoa izan zen, gutxienez ere, kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu-oinarri egokirik gabe ordaindutako aurrekontu-gastua (kontuan hartu da taulan ageri den zenbatekoa gehi O-NOZerako aparte adierazitakoa). Azpimarratzen dugu 2021ean zenbatekoa 219,68 milioi izan zela eta 2022an % 28 (60,88 milioi) handitu dela.





## 5. gehigarria. Erregularitasunari buruzko fiskalizazioaren oharra eta aurkitutako beste gorabehera batzuk

Ondoren ohar, iruzkin eta argibide gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Era berean, Ganbera honek beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak jaso ditugu, NFKAren, haren erakunde autonomoen, haren sozietateen eta fundazio publikoen ekonomia- eta administrazio-kudeaketa hobetzeko.

### 5.1. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorra

2021eko abenduaren 29an, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 18/2021 Foru Legea onetsi zen. Gastuen guztizko zenbatekoa 5.273 milioi izan zen. Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-egonkortasunari buruzko Lege Organikoa betetze aldera, gastu ez-finantzarioaren 3.922 milioiko sabaia ezarri zen.

2022ko aurrekontuak, bere gastu-partiden artean, Kontingentzia Funtz bat barne hartzen du, AEFILOren eta Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eskakizunekin bat etorriz. Funtz horrek, hasieran, 5,43 milioi euroko zuzkidura zuen aurrekontuetan aurreikusitako ezin izan ziren eta atzeratu ezin diren eta esku-menekoak ez diren premiei aurre egiteko.

#### *Aurrekontuko aldaketak*

Gastuetarako hasierako kredituek % 12ko igoera garbia izan dute (741,11 milioi euro) aldaketan bitartez, eta kreditu bateratuak 6.014,24 milioikoak izatera iritsi dira.

Hona hemen 2022an onetsitako aldaketak:

Aurrekontuko aldaketak	(milakotan)		
	Diruzaintza-gerakinarekin finantzatuak	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	26.090	367.011	65.242
Kreditu sorrerak	53.259	220.430	-
Kreditu txertaketak	49.623	-	1.530
Kreditu-gehiagarriak	-	-	-
Aparteko kredituak	4.200	20.498	686

Aurreko taulan ez dira jaso kreditu transferentziak (27,52 milioi, guztira), zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Diru-sarrera handiagoekin 2022an finantzatutako aurrekontu-aldaketak 607,94 milioikoak izan dira. Nabarmendu behar dugu aurreko ekitaldikoak baino 495,77 milioi gehiagokoak izan direla (% 441 handiagoak). Alde horren arrazoi





nagusia da 2022an aitortu direla erregaien hobariagatiko diru-sarrera berriak eta Next Generation Funtsei (SEM) nahiz Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren ondoriozko doikuntza fiskalei lotutako diru-sarrera handiagoak.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezotasun txostenak egin zituen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz. Konklusioa da organo eskudunak onetsi zituela aldaketak, eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; tartean, finantzaketa-iturrien bidezko-tasunari dagokiona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen, transferentziak barne, gutzizko zenbatekoak 810,94 milioi egin zuen.

Bestalde, aurreikusitako kontingentzia funtsa 4,32 milioiko gastuak finantzatzeko erabili zen. Hala ere, beheko taulan jaso dugu zuzkidura horrek 2019-2022 bitartean nolako bilakaera izan duen bai aurrekontuei buruzko foru lege proiektuan, bai geroago, foru legearen onespenean:

	(milakotan)			
Kontingentzia funtsa	2019	2020	2021	2022
Hasierako zuzkidura aurrekontuei buruzko foru lege proiektuan	15.123	3.938	21.049	20.809
Amaierako zuzkidura aurrekontuei buruzko foru legean	4.564	3.938	10.563	5.430
Aldea	10.559	0	10.486	15.379
Hasierako zuzkiduraren ehunekoa aurrekontuei buruzko foru lege proiektuaren aldean	% 0,4	% 0,1	% 0,4	% 0,4
Amaierako zuzkiduraren ehunekoa aurrekontuei buruzko foru legearen aldean	% 0,1	% 0,1	% 0,2	% 0,1

Agertu diren aldeak talde parlamentarioek aurrekontuen proiektuei aurkeztu dizkieten zuzketak eztabaidatzeko prozesuan gertatu dira, foru legea onetsi aurreko urratsean.

2022ko abenduaren 31n ez dago jasota krediturik ez izatearen atxikipenik.





### Aurrekontu-likidazioa

2022an aitortutako betebeharrak 5.600,51 milioi egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajeak % 93 eta % 97 izan dira, hurrenez hurren.

Aitortutako eskubide garbiek 5.916,58 milioi egiten dute, eta betetze-maila eta kobrantza-maila ehuneko 98 eta ehuneko 99 dira hurrenez hurren.

Hurrengo alderdiak azpimarratuko ditugu:

- 2022an gastatutakoaren xedeak eta finantzaketa-iturriak, 100 euro bakoitzeko:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2021	Zenbatekoa, 2022	Finantzaketa iturria	Zenbatekoa, 2021	Zenbatekoa, 2022
Langileak	31	29	Tributu bidezko diru-sarrerak	82	83
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15	15	Transferentziengatikoko diru-sarrerak	11	7
Transferentziengatikoko gastuak	38	45	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	4	3
Inbertsio errealak	3	4	Zorpetzea	3	7
Finantza-zama	13	8			
Finantza-aktiboak	0	0			
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>		<b>100</b>	<b>100</b>

Bistan denez, 2022an gastuaren egiturak aldaketa esanguratsuak izan ditu transferentzietan, zazpi puntu egin baitute gora, eta finantza-zaman (zorraren amortizazioa eta interesak), ehuneko bost puntu egin baitu behera.

Finantzaketaren egituran, transferentziengatikoko diru-sarrek izan dute alde garrantzitsuena, ehuneko lau puntuko jaitsiera hain zuzen. Zorpetzea, berriz, lau puntu handitu da.





2022ko aurrekontu-gastua, xedearen edo funtzioaren arabera, hau izan zen:

(milakotan)

Gastu-politika	ABG, 2021	ABG, 2022	Guztizko AB-Gen gainerako ehunekoa, 2022	2022/2021 aldea (%)
<b>Oinarrizko zerbitzu publikoak</b>	<b>151.851</b>	<b>167.613</b>	<b>3</b>	<b>10</b>
Justizia	33.926	36.308	1	7
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	100.353	110.595	2	10
Atzerri-politika	17.572	20.711	0	18
<b>GASTU SOZIALA (A) + (B)</b>	<b>2.784.129</b>	<b>2.957.891</b>	<b>53</b>	<b>6</b>
<b>(A) Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak</b>	<b>630.118</b>	<b>708.102</b>	<b>13</b>	<b>12</b>
Pentsioak	118.371	128.042	2	8
Bestelako prestazio ekonomikoak	2.881	3.026	0	5
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	394.643	423.806	8	7
Enpleguaren sustapena	56.088	71.943	1	28
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	58.134	81.284	1	40
<b>(B) Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena</b>	<b>2.154.010</b>	<b>2.249.790</b>	<b>40</b>	<b>4</b>
Osasuna	1.272.659	1.310.821	23	3
Hezkuntza	819.308	869.407	16	6
Kultura	62.044	69.561	1	12
<b>Jarduketa ekonomikoak</b>	<b>471.657</b>	<b>541.149</b>	<b>10</b>	<b>15</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	91.444	105.939	2	16
Industria eta energia	70.297	51.043	1	-27
Merkataritza, turismoa eta ETEak	25.831	20.087	0	-22
Garraiorako dirulaguntzak	50.333	60.030	1	19
Azpiegiturak	162.146	224.707	4	39
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	57.709	63.729	1	10
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	13.897	15.613	0	12
<b>Jarduketa orokorrak</b>	<b>1.656.847</b>	<b>1.933.860</b>	<b>35</b>	<b>17</b>
Goi zuzendaritza	19.231	19.908	0	4
Zerbitzu orokorrak	102.945	265.396	5	158
Finantza- eta tributuzko administrazioa	24.966	31.920	1	28
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa	534.927	882.772	16	65
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	5.850	4.850	0	-17
Toki administrazioentzako transferentziak	290.277	312.503	6	8
Zor publikoa	678.651	416.511	7	-39
<b>Guztira</b>	<b>5.064.484</b>	<b>5.600.514</b>	<b>100</b>	<b>11</b>

2022an, osasunean eta hezkuntzan egindako gastua nabarmentzen da, gastu osoaren % 23 eta % 16, hurrenez hurren. Gainera, azpimarratu behar ditugu Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa (% 16), gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena (% 8) eta zor publikoa (% 7).

2021arekin alderatuta, gehikuntza adierazgarriak izan dira zenbait gastu-politikatan. Hain zuzen, gastua % 158 (162,45 milioi) handitu da zerbitzu orokorretan, % 65 (347,85 milioi) Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoan, % 40 (23,15 milioi) etxebizitza eskuratzearen eta eraikuntza sustatzearen alorrean, eta % 39 (62,561 milioi) azpiegiturretan.

Bestalde, gastu batzuk murriztu egin dira. Hala, zor publikoarekin lotutakoak % 39 (262,14 milioi) murriztu dira, industria eta energia arlokoak % 27 (19,25








milioi), eta merkataritzaren, turismoaren eta ETEen arloko jarduketan gastuak, berriz, % 22 (5,74 milioi).

Aurreko gastu-kategoriak gastu-politiken, oinarrizko zerbitzu publikoen, gizarte-gastuen (gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak eta lehentasunezko ondasunen ekoizpena), jarduera ekonomikoen eta jarduera orokorren arabera taldekatzen baditugu, hau da gastuaren banaketa 2022an:



2021etik 2022ra aipatutako aldaketak gertatu badira ere, aipatutako politiken arteko gastu-banaketaren ehunekoak antzekoak dira bi ekitaldietan.



Hurrengo taulan, 2021erako eta 2022rako gastuen eta diru-sarreraren aurre-kontu-likidazioarekin lotutako adierazleen multzo baten alderaketa erakusten dugu:

(milakotan)			
Adierazlea	2021	2022	2022/2021 al-
Gastua, guztira	5.064.484	5.600.514	11
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4. kapitulura)	4.119.235	4.779.481	16
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	4.044.483	4.735.802	17
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	313.355	405.716	29
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	631.894	415.317	-34
Diru-sarrerak, guztira	5.072.470	5.916.577	17
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	4.711.197	5.289.367	12
Tributu bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontrib. be-reziak)	4.161.670	4.926.642	18
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	101	103	2
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa*	4.170.391	4.979.457	19
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa / BPGa (ehunekoa)	20,46	21,22	4
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	190.038	199.689	5
Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapitu-luak)	171.235	427.523	150

\* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- 2022an, gastuak, guztira, 5.600,51 milioi eurokoak dira, eta % 11 handitu dira (536,03 milioi) 2021. urtearen aldean.

- Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastu guztien % 85 egiten dute, eta % 16 handitu dira.

Finantza-eragiketei dagozkienak % 7 dira, eta % 34 gutxitu dira 2021eko aldean, batez ere azken ekitaldi horretan ezohiko mailegu-amortizazio aurreratu bat egin zelako, 370 milioikoa; 2022ko ekitaldian, berriz, amortizazio aurreratu-etan 146,5 milioi baino ez dira gastatu.

Kapital-gastuek gainerako % 7a hartzen dute, eta 92,36 milioi handiagoak izan dira, hau da, % 29 hazi dira.

- 2022ko diru-sarrerak 5.916,58 milioi eurokoak izan dira, eta % 17 igo dira (844,11 milioi) 2021eko aldean.

Gehien hazi direnak diru-sarrera arruntak dira, 578,17 milioi handitu baitira (% 12), funtsean tributu bidezko diru-sarreraren gehikuntzari esker; izan ere, azken horiek 764,97 milioi handiagoak izan dira (% 18 handiagoak).

Nabarmendu behar dugu Nafarroako Foru Komunitatearen alde egindako doikuntza fiskalek eragina izan dutela igoera horretan, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoan 2022an egindako aldaketaren ondorioz. Egindako doikuntza fiskal batzuk 2020ko eta 2021eko ekitaldietako erregularizazioari dagozkio eta beste





batzuek 2022ko ekitaldiari soilik eragiten diote, txostenaren 5. gehigarriaren 5.6 apartatuan zehatz azaltzen denez.

Bestalde, finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak 256,29 milioi hazi dira (% 150). Izan ere, 2022an 125 milioiko zor publikoa eta 282 milioiko finantza-maileguak hitzartu dira zorra birfinantzatzeko. 2021ean 150 milioiko zor publikoa besterik ez zen jaulki.

- Tributu bidezko diru-bilketa likidoa 4.979,46 milioikoa izan zen 2022an, 2021ekoa baino % 19 (809,07 milioi) handiagoa. Kontuan hartu behar da handitze horretan zerikusia izan duela Hitzarmen Ekonomikoan egindako aldaketak, arestian aipatutakoak.

Diru-bilketa hori Nafarroako BPGaren % 21,22 da (22.402 milioi euroko BPGa zenbatetsi da), 2021ean baino % 4 gehiago .

## 5.2. NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioa 2022ko abenduaren 31n

Hurrengo taulan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2021. eta 2022. urteetan:

Adierazleak	2021	2022	(milakotan)
			2022/2021 aldea (%)
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	468.645	303.857	-35
Aurrekontu-emaiza doitua	62.237	295.271	374
Aurrezki gordina	666.714	553.565	-17
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	681.369	425.108	-38
Aurrezki garbia	-14.655	128.457	977
Finantza-zorra *	2.847.893	2.867.732	1
Zorraren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean	60	54	-10
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	27.014	113.698	321
Eratutako abalak (saldo bizia)	63.175	42.118	-33
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	3.701.640	3.889.519	5

\*Kostu amortizatukoa.

Bilakaera horretatik honako hau nabarmendu behar dugu:

- Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 2022an 164,79 milioi gutxiagokoa izan da 2021ean baino, hau da, % 35 txikiagoa. Arrazoi nagusia da gastu ez-finantzarioak % 17 hazi direla baina diru-sarrera ez-finantzarioen igoera % 12koa izan dela.

- Aurrekontu-emaiza doitua % 374 handitu da: 2021ean 62,24 milioi izatetik 2022an 295,27 milioi izatera pasatu da. Arrazoi nagusia finantza-pasiboen alde garbian datza. Izan ere, 2022an balio positiboa izan zuen eta 2021eko ekitaldian, aldiz, balio negatiboa.





- 2022ko aurrezki gordina aurreko ekitaldikoa baino % 17 txikiagoa izan zen, gastu arruntak gehiago hazi zirelako diru-sarrera arruntak baino. Finantza-zama % 38 murriztu zen, eta ondorioz % 977 handitu zen aurrezki garbia; hain zuzen, 2021ean 14,65 milioiko aurrezki garbi negatiboa izan zen, eta 2022an, berriz, 128,46 milioiko aurrezki garbi positiboa.

- Finantza-zorra ia ez da aldatu. Haren zenbatekoa 2.867,73 milioi da, eta diru-sarrera arruntan % 54 hartzen du; 2021ean % 60 hartu zuen.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak gehikuntza nabarmena izan zuen, % 321ekoa, 86,68 milioi handitu baitzen, batez ere ekitaldiaren itxieran diruzaintzan izandako gehikuntzari esker (399,29 milioi, hau da % 124). Nabarmenezkoa da 2022ko abenduaren 30ean Estatuak 657 milioiko diru-sarrera egin zuela Hitzarmen Ekonomikoaren likidazioagatik.

- Zorraren aldearen aurrekontu-bilakaera (hitzartutako zorra ken amortizatutako zorra) honako hau izan da 2013-2022 bitartean, milioitan:

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Hitzartutako zorra	463,66	492,58	446,94	579,70	498,01	208,06	214,46	648,37	149,44	406,19
Amortizatutako zorra	193,21	296,53	307,23	416,08	293,93	373,15	336,99	289,94	606,62	381,43
Zorraren aldea	270,45	196,05	139,71	163,62	204,08	-165,09	-122,53	358,43	-457,18	24,76

Zor garbiaren zenbatekoa murriztuz joan zen 2013az geroztik, eta 2016an eta 2017an gora egin zuen; balio negatiboak izan zituen 2018an eta 2019an. Hala ere, 2020an lortu zuen baliorik handiena, 358,43 milioi. 2021ean joera aldatu egin zen 2020koaren aldean; zorpetze garbia berriz ere negatiboa izan zen, amortizazio aurreratu handi bat egin zelako, eta balio positibora itzuli da 2022an; izan ere, ekitaldi horretan, zor publikoa jaulkitzeaz gain, 282 milioiko maileguak hitzartu dira banku entitateekin.

Ganbera honen aurreko txostenetan adierazi dugun bezala, hitzartutako eta amortizatutako zorraren zenbateko horiek nabarmen baldintzatzen dituzte zorra amortizatzeke egutegiak eta interes tasen aldaketak, txosten honen 5.12 atalean jaso ditugunak.

- Etorkizuneko ekitaldietarako hitzemandako aurrekontu-gastuak 3.889,52 milioi eurokoak dira, eta horietatik % 74 zorraren finantza-zamari dagozkio. 2021eko datuen aldean, gastu horiek % 5 igo dira.





## Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(milakotan)

Kapitulua	2023	2024	2025	Gainerako urteak	Guztira	Guzt/g (%)
1 Langile-gastuak	2.673	2.673	0	0	5.346	0
2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	206.008	47.373	12.365	10.623	276.369	7
3 Finantza-gastuak	36.010	33.311	26.284	171.784	267.388	7
4 Transferentzia arruntak	65.115	6.577	1.500	855	74.047	2
6 Inbertsio errealak	138.570	28.295	19.232	7.667	193.764	5
7 Kapital transferentziak	138.322	74.530	11.174	255	224.281	6
8 Finantza-aktiboak	2.850	2.850	2.350	1.350	9.400	0
9 Finantza-pasiboak	224.215	234.529	261.340	2.118.840	2.838.923	73
<b>Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira</b>	<b>813.763</b>	<b>430.136</b>	<b>334.245</b>	<b>2.311.375</b>	<b>3.889.519</b>	<b>100</b>
<i>Ehunekoak/urtea</i>	<i>21</i>	<i>11</i>	<i>9</i>	<i>59</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebeharrak, ez itzaleko bidesarrietatik datozen gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarrietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien zenbatekoa zein den ezin delako jakin. Aurreikuspen horiek oroitidazkiaren kontingentzien atalean jaso dira; honako hauek dira:

Azpiegitura	2023	2024	2025	Gainerako	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	18.692	19.207	20.280	218.099	276.278
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	10.406	16.851	17.309	411.010	455.576
Donejakue Bideko autobia	56.553	63.634	65.679	137.768	323.634
Pirinioetako autobia	21.088	24.947	25.836	458.053	529.924
<b>Guztira</b>	<b>106.739</b>	<b>124.639</b>	<b>129.104</b>	<b>1.224.930</b>	<b>1.585.412</b>

Iturria: NFKAko urteko kontuen oroitidazkia.

• Nolanahi ere, aurrean egindako azterketa osatzeko, eta 2020ko eta 2021eko ekitaldiak bereziak izan zirenez COVID-19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, egokitzat jo da alderaketa egitea pandemia-egoera horren aurreko ekitaldia ere kontuan hartuta. Datuak honako hauek dira:

(milakotan)

Adierazleak	2019	2020	2021	2022	2022/2019 aldea (%)
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	150.863	-203.016	468.645	303.857	101
Aurrezki gordina	496.971	152.785	666.714	553.565	11
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	412.051	355.070	681.369	425.108	3
Aurrezki garbia	84.920	-202.286	-14.655	128.457	51
Finantza-zorra*	2.961.088	3.310.603	2.847.893	2.867.732	-3
Zorren ehunekoak diru-sarrera arrunten gainean	71	82	60	54	-24





\*Kostu amortizatukoa

**Laburbilduz**, pandemiak sortutako egoeratik administrazio publiko guztiek izan zuten suspertze prozesua bukatu ondoren, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioak adierazle nagusien hobekuntza nabarmena agertzen du aztertutako epealdian.

### 5.3. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eten egin zen 2020-2021 urteetarako egonkortasunari, zorrari eta gastu-arauari buruzko zerga-arauak betetzea, eta gero etenaldia 2023ra arte luzatu da.

2022ko kontu orokorren oroitidazkiak dakarrenez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa Koordinatzeko Batzordeak erabaki zuen, 2021eko abenduaren 20an, berrestea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Ogasuneko Estatu Idazkaritzaren eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren artean defizitaren eta zor publikoaren erreferentziazko tasei buruz sinatutako akordioa. Honako hauek dira:

- % 0,9ko defizita 2022rako. 2022ko kontu orokorren oroitidazkiaren arabera, ez dago defizitik eta superabita % 1,35ekoa da. Beraz, adostutakoa betetzen ari da.
- BPGaren % 16,7ko zor publikoa 2022rako. Zor publikoa, 2022ko kontu orokorren oroitidazkiaren arabera, BPGaren % 14,1ekoa da, eta, beraz, adostutakoa betetzen ari da.
- Gastu-arauaren kasuan, ez zen ezer arautu, hura ondorerik gabe geratu baitzen, Kongresuaren Osoko Bilkurak etetea onetsi eta gero. Nolanahi ere, 2022ko kontu orokorren oroitidazkiak dio gastua % 7,8 handitu zela, helburua bete zen ala ez baloratzeari ekin gabe.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak, zeina kontabilitate nazionalako terminoetan (KSE 2010) mugatuta baitago, 2022an finantza-iraunkortasunaren printzipioaren araberrako eskakizun hauek bakarrik bete behar ziotuen:

- Merkataritza-zorraren iraunkortasuna: hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa da.





Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak hilero argitaratzen du adierazlearen balioa Administrazio Publikoaren sektorearen ordaintzeko batez besteko epeari dagokionez. Honako hauek dira datuak:

2022	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan)
Urtarrila	23,50
Otsaila	25,85
Martxoa	24,72
Apirila	27,20
Maiatza	26,39
Ekaina	22,51
Uztaila	28,63
Abuztua	29,51
Iraila	25,14
Urria	24,21
Azaroa	21,77
Abendua	21,85

Iturria: Nafarroako Gobernuak.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak 2022an merkataritza-zorraren iraunkortasunaren printzipioa bete zuen, araudian ezarritako epea hilabete bakar batean ere gainditu gabe; egiaztatu dugu ez dela atzerapen esanguratsurik izan hornitzaileei egindako ordainketetan, berandutze-interesengatik gastuak eragin dituenik.

- Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gautzen da:

a) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko eta 2017ko uztailaren 4ko ebazpenei jarraituz.

Egiaztatu dugu baldintza hori betetzen dela 2022an gauzatu diren zorpetze-eragiketetan.

b) Abalak, berrabalak edo bestelako berme publikoak. Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira KSEren arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batetik, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen baitute gainditu Nafarroaren BPGaren % 1,5; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen baitu gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren % 0,1eko muga.







Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2022ko abenduaren 31n, abalei eta beste berme batzuei dagokienez, 135 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren sektoretik kanpoko pertsona fisiko eta/edo juridikoei eman zaizkie –sektore hori KSE 2010 sistemaren arabera definituta–; halaber, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 88 milioiko abalak emateko aurreikuspenak jaso ditu.

Horrenbestez, 2022an emandako eta 2023rako aurreikusitako abalen zenbatekoa 214 milioikoa da, eta zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren % 1 egiten du. Portzentajea legeriak aipatzen duen % 1,5eko mugatik behera dago; hortaz, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

c) Finantza-aktiboak. Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2021ean helburu hori bete zuenez, betebeharrak ezin zaio aplikatu 2022ko ekitaldiari.

Laburbilduz, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak, 2022ko ekitaldian, Hitzarmena Koordinatzeko Batzordean ezarritako erreferentziazko parametroak bete ditu, baita finantza-iraunkortasunaren printzipioari buruz indarrean dauden eskakizunak ere.

#### 5.4. Langile-gastuak

2022an, langile-gastuak 1.609,61 milioi eurokoak izan dira, gastu guztien % 29, hain zuzen. Langile-gastuen % 43 Osasun Departamentuari dagokio; % 32, Hezkuntza Departamentuari; eta % 14, Lehendakaritzako, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako Departamentuari.

Hauxe da aurrekontuko artikuluen araberrako banaketa:

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebeharrak, 2021	Aitortutako betebeharrak, 2022	(milakotan)
			2022/2021 aldea (%)
Goi kargudunak	4.949	4.877	-1
Behin-behineko langileak	3.268	3.538	8
Lanpostuko ordainsariak	942.117	978.922	4
Langileen ordainsariak	149.946	158.226	6
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	355.922	370.817	4
Ordainsari aldakorrek	82.184	84.574	3
Beste ordainsari batzuk	11.048	8.655	-22
<b>Guztira</b>	<b>1.549.434</b>	<b>1.609.608</b>	<b>4</b>

2021. urtearen aldean, langile-gastuak % 4 (60,17 milioi) igo ziren. Hauek dira alde horren arrazoi nagusiak:







- 2022an % 3,5eko soldata igoera aplikatu zen<sup>6</sup>
- Langile finkoen ordainsarrietan % 8ko (37,04 milioiko) gehikuntza izan da, batetik goian aipatutako soldata igoera aplikatu delako eta bestetik langile finkoen kopurua handitu egin delako (15.695 langile 2022an eta 14.935 langile 2021ean).
- Ordezkapenatarako kontratatutako langileen gastuan % 14ko (8,97 milioiko) igoera izan da.
- Lanbide-karrerarengatiko ordainsarien % 11ko (1,93 milioiko) gehikuntza-zen zatirik handiena Osasun Departamentuari dagokio.
- Funtzionarioen pentsioetan egindako gastua % 7 (6,85 milioi) handitu da, pentsioak % 8,5 igo direlako eta 136 pentsiodun gehiago izan direlako.

### *Plantilla organikoa eta lan eskaintza publikoa*

NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2022ko abenduaren 31ko plantilla organikoa eta langile finkoen eta behin-behineko langileen zerrenda Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren maiatzaren 3ko 94/2023 Foru Aginduaren bidez argitaratu ziren, 2023ko ekainaren 6ko NAO-n. Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz egin duen moduan, nabarmentzen du informazio hori atzerapenez argitaratu zela.

2022ko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 25.860 ziren: 2021ean baino 1.230 lanpostu gehiago. Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Beteta	4.647	4.484	5.872	6.158	5.578	6.156	16.097	16.798
Hutsik	2.370	2.588	2.336	2.617	3.827	3.857	8.533	9.062
Lanpostuak, guztira	7.017	7.072	8.208	8.775	9.405	10.013	24.630	25.860

Lanpostuen % 39 O-NOZi dagozkio, % 34 Hezkuntzari, eta gainerakoak, % 27, Administrazio Erroari. Lanpostu guztietatik, % 65 beteta daude eta % 35 hutsik daude.

<sup>6</sup> Hasieran % 2ko igoera onetsi zen, eta gero, horrez gain, Estatuak % 1,5eko igoera onetsi zuen inflazioaren eragina konpentsatzeko; azken igoera hori azaroko nominan erregularizatu zen.





2021ean eta 2022an honako hau da betetako lanpostuen banaketa tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota		2021	2022
Lanpostu ez-oinarrizkoak	Behin-behineko langileak	146	148
	Burutzak	1.541	1.543
Oinarrizko lanpostuak		14.410	15.107
<b>Betetako lanpostuak, guztira</b>		<b>16.097</b>	<b>16.798</b>

2022an 16.798 lanpostu zeuden beteta, 2021ean baino % 4 gehiago (701 gehiago). 2021arekin alderatuta, oinarrizko lanpostuek izan dute alderik handiena, % 4 igo baitira (697 lanpostu gehiago).

Kontu orokorren oroitidazkian ageri denez, 2.386 lanpostu ez dituzte beren titularrek betetzen, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatiko erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzarako, hobekuntzarako edo ikerketarako zerbitzu bereziak, eta abar.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2021	2022
Lanpostuak, guztira	24.630	25.860
Hutsik	8.533	9.062
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	35	35
Betetako lanpostu hutsak	5.569	5.768
Betetako lanpostu hutsak lanpostu huts guztien gainean (%)	65	64

2022an, lanpostu guztien % 35 hutsik zeuden, eta, horien barruan, % 64 behin-behinean beteta zeuden. Ehuneko horiek 2021eko parekoak dira.

Egiaztatu dugu ezen plantilla organikoan jasotako datuak eta horri buruz kontu orokorretako oroitidazkian emandako informazioa bat datozela.

Gobernuak, 24 foru dekreturen bidez, plantillaren aldaketak onetsi zituen, 96 lanpostu amortizatzeke (Administrazio Erroko 40, Hezkuntza Departamentuko lau eta Osasun Departamentuko 52) eta 1.327 lanpostu sortzeko (665 Osasun Departamenturako, 186 Administrazio Errorako eta 476 Hezkuntza Departamenturako).

Egiaztatu dugu aldaketa horiek guztiak plantillan jaso direla.





### Ordezte- eta egonkortze-tasen azterketa

2022an zehar zenbait lan eskaintza publiko (LEP) onetsi dira, lanpostu hauek bildu dituztenak:

LEParen arrazoa eta haren esparrua	Zenbat lanpostu
Ordezte tasa (734)	
Administrazio Erroa	277
Hezkuntza	253
Osasuna	204
Egonkortze tasa (3.571)	
Administrazio Erroa	1.426
Hezkuntza	766
Osasuna	1.379
<b>2022ko LEPeko lanpostuak, guztira</b>	<b>4.305</b>

Ikus daitekeenez, 4.305 lanpostuetatik 1.703 (% 40) Administrazio Erroari dagozkio, 1.019 (% 23) Osasun Departamentuari, eta gainerako 1.583 lanpostuak (% 37) Hezkuntza Departamentuari.

- Ordezte tasei dagokienez, abenduaren 14ko 114/2022, 115/2022 eta 116/2022 foru dekretuen bidez LEP bana onetsi zen aipatu hiru esparruetarako, eta guztira 734 lanpostu bildu zituzten. Aztertu dugu ea legez eskatutako baldintzak betetzen dituzten LEPetan sartzeko, eta emaitza zuzena da.

- Egonkortze tasaren aplikazioari dagokionez, azpimarratu behar dugu Nafarroako administrazio publikoetan 19/2022 Foru Legeak arautzen dituela behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesuak, NFKAren eta haren erakunde autonomoen deialdietan gauzatu beharrekoak (19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira egonkortze prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz<sup>7</sup>).

Legearen agindua betez, enplegua egonkortzeko lan eskaintza publikoak onetsi ziren honako foru dekretu hauetan:

- Maiatzaren 25eko 57/2022 Foru Dekretua, Administrazio Erroaren eremurako (irailaren 14ko 80/2022 Foru Dekretuak aldatu zuen).
- Maiatzaren 25eko 58/2022 Foru Dekretua, osasun-langileen eremurako (azaroaren 30eko 105/2022 Foru Dekretuak aldatu zuen).
- Maiatzaren 25eko 59/2022 Foru Dekretua, unibertsitateaz kanpoko irakasleen eremurako.

Hiru LEPen datuak taula honetan laburbildu dira:

<sup>7</sup> 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan aldi baterako lana murrizteko presako neurriei buruzkoa.





	Merezimendu lehiaketa	Oposizio-lehiaketa	Guztira
Administrazio Erroa	1.113	313	1.426
Hezkuntza	527	239	766
Osasuna	1.244	135	1.379
<b>Guztira</b>	<b>2.884</b>	<b>687</b>	<b>3.571</b>

Lanpostu hauek sartu dira LEPetan: 20/2021 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoak<sup>8</sup> (oposizio-lehiaketa izan behar dute hautapen sistema), eta lege horren 6. xedapen gehigarriari dagozkionak<sup>9</sup> eta 8. xedapen gehigarriari dagozkionak<sup>10</sup> (batzuk zein besteak salbuespenekoak dira eta lehiaketa dute hautapen sistema). Gainera, aurreko egonkortze prozesuetako lanpostu batzuk sartu dira, legeak ezarri bezala.

Lehenagoko LEPetako deialdietatik eta 2022ko LEPetik kanpo gelditu diren lanpostuen egoera honako hau da:

2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko LEPak	Administrazio Erroa	Osasuna	Hezkuntza
Deialdia egiteko dauden lanpostuak	96*	264	0

\*Ordezteko 76 lanpostu eta egonkortzeko 20 lanpostu.

Egiaztatu dugunez, egonkortze tasei dagozkien LEPak 2022ko ekainaren bata baino lehenago onetsi dira, eta deialdiak ere 2022ko abenduaren 31 baino lehenago onetsi dira; beraz, 20/2021 Legean ezarritako epeak bete dira. Bestalde, jasorik dago 90 errekurtsio jarri direla Administrazio Erroko deialdietan, 18 Hezkuntzan eta 28 Osasunean. Horietatik guztietatik errekurtsio bakarra baietsi da, Osasun arlokoa.

Egonkortze prozesuan, aurreikusten diren lanpostuen kopuru handia, eskatutako baldintzak zein lanpostuk betetzen dituzten zehazteko zailtasun teknikoak eta SAP RR-HH aplikazioarekin automatikoki balidatzeko ezintasuna direla-eta, ezin izan dugu berrikuspenik egin datuak balidatu ahal izateko zentzuzko ziurtasuna emanen zigukeenik.

### *NFKAko langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa*

<sup>8</sup> Egiturazko lanpostuak, aurrekontu-zuzkidura dutenak, lanpostu-zerrenda edo plantilla batean egon zein ez egon, 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan, gutxienez, aldi baterako beteta egon badira etenik gabe.

<sup>9</sup> 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten lanpostuak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako beteta egon badira etenik gabe.

<sup>10</sup> Horrez gain, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze prozesuetako deialdietan sartu behar dira 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako langile batek bete dituen egiturazko lanpostu hutsak.





2018-2022 aldiko langile finkoen alden eta bajen kopurua aztertu dugu, lanpostuaren erreserbak kontuan izan gabe (zeren eta ez baitira administrazioko behin betiko bajak), eta honako hauek dira emaitzak:

	2018	2019	2020	2021	2022	Guztira
<b>Altak:</b>	<b>156</b>	<b>379</b>	<b>618</b>	<b>389</b>	<b>894</b>	<b>2.436</b>
Hezkuntza	8	303	503	110	576	1.500
Osasuna	38	35	44	142	245	504
Administrazio Erroa	110	41	71	137	73	432
<b>Bajak:</b>	<b>680</b>	<b>754</b>	<b>625</b>	<b>662</b>	<b>687</b>	<b>3.408</b>
Hezkuntza	319	380	246	323	245	1.513
Osasuna	243	216	237	201	244	1.141
Administrazio Erroa	118	158	142	138	198	754
<b>Alde garbia (altak – bajak)</b>	<b>-524</b>	<b>-375</b>	<b>-7</b>	<b>-273</b>	<b>207</b>	<b>-972</b>

Alde garbi negatiboa ageri da 2018-2022 aldian, 972 pertsonakoa; baina 2020an alde garbi hori nabarmen murriztu zen. 2022ko ekitaldian lehen aldiz altak bajak baino gehiago izan dira.

Halaber, lortu dugu 2018-2022 bitarteko urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langile finkoen eta aldi baterako langileen datua, NFKA osoan data horretan izandako behin-behinekotasunaren indizea<sup>11</sup> lortzeko; honako hauek dira emaitzak:

	2018	2019	2020	2021	2022
Egiazko langileak	28.834	29.943	31.731	32.103	31.826
Langile finkoak	15.144	15.062	14.673	14.935	15.695
Aldi baterako langileak	13.690	14.881	17.058	17.158	16.131
Aldi baterako langileak/egiazko langileak (%)	47	50	54	53	51

Ikus daitekeenez, aipatutako datako behin-behinekotasun indizea nabarmen handitu da aztertutako aldian, eta 2018an % 47 izatetik 2022an % 51 izatera pasatu da. 2021eko ekitalditik, ordea, apur bat jaisten hasi da. Halaber, adierazi beharra dago 2020ko eta 2021eko ekitaldietako balioetan balitekeela eragina izatea COVID-19aren ondorioz egindako aldi baterako kontratazioek.

<sup>11</sup> Behin-behinekotasun honek barruan hartzen du premia iraunkorren eta unekoen ondoriozkoa.





2020-2022 aldiko abenduaren 31n lanean ari ziren langileen sailkapena, NFKaren eremuaren arabera, honako hau da:

	Langile finkoak			Aldi baterako langileak			Langileak, guztira			Aldi baterako langileak (%)		
	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022
Hezkuntza	5.288	5.662	5.933	6.335	6.052	6.028	11.623	11.714	11.961	55	52	50
O-NOZ	4.931	4.896	5.456	8.630	8.887	7.866	13.561	13.783	13.322	64	64	59
Erroa	4.454	4.377	4.306	2.093	2.229	2.237	6.547	6.606	6.543	32	34	34
<b>Guztira</b>	<b>14.673</b>	<b>14.935</b>	<b>15.695</b>	<b>17.058</b>	<b>17.168</b>	<b>16.131</b>	<b>31.731</b>	<b>32.103</b>	<b>31.826</b>	<b>54</b>	<b>53</b>	<b>51</b>

Pixkanakako jaitsiera agertzen da 2020ko ekitalditik aurrera. Behin-behinekotasun indizea 2021ekoaren parekoa da Administrazio Erroan eta jaitsi egin da Hezkuntzan eta O-NOZen; azken eremu horretan agertzen da jaitsierarik handiena.

- Hala ere, araudi berriarekin hasitako egonkortze prozesua ez da amaitu, deialdi guztiak ebazteko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko baita.

Ondorioz, une honetan ezin da baloratu legez ezarritako helburua bete den, hau da, behin-behinekotasuna % 8ra murriztu den egiturazko lanpostuetan, Kontuan izan behar da gure txostenean islatutako behin-behinekotasun ratioek barruan hartzen dituztela bai premia iraunkorren ondoriozko ratioak (egiturazkoak) eta bai unean unekoak ere.

Bestetik, 2018-2022 aldiko langile finkoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte bakoitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

	2018		2019		2020		2021		2022	
	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)
30 urtetik beherakoak	154	1	280	2	256	2	315	2	459	3
31 eta 40 urte bitarte	2.014	13	1.955	13	1.792	12	1.873	13	2.175	14
41 eta 50 urte bitarte	5.223	34	5.096	34	4.877	33	4.928	33	5.155	33
51 eta 55 urte bitarte	3.416	23	3.299	22	3.212	22	3.119	21	3.098	20
55 urtetik gorakoak	4.337	29	4.432	29	4.536	31	4.699	31	4.808	31
Batez besteko adina	50	-	50	-	50		50		50	

Nabarmendu behar dugu 55 urtetik gorako pertsonak % 31 inguru direla aztertutako aldian; halaber, 60 urtetik gorako pertsonak 2018an % 11 izatetik 2022an % 13 izatera pasa dira.

**Laburbilduz**, behin burututakoan plantillak egonkortzeko prozesua, uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legean ezarritakoa, eta hura 2024ko abenduan behin betiko baloratu arte, dagoen behi-behinekotasuna eta langileen adinaren arabera banaketa kontuan hartuta, neurriak hartzen jarraitu beharra dago, nahiz eta egonkortze prozesu bereziak bete.





### Langile-gastuaren egiaztapenak

Aztertu dugu ea SAP RRHH aplikazioan (hartan, nominak sortzen dira) kontabilizatutako gastua bat datorren SAPGE'21en eta aurrekontuan erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat datozela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Gainera, NFKAko eta haren erakunde autonomoetako langile aktiboek 2022 osoan sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagina berrikusi dugu, kontuan hartu gabe ikastetxe itunduetako langileak, hilabetez lanpostuz aldatu diren langileak eta hainbat arrazoiengatik hilabete osoan lan egin ez dutenak.

Zehazki, nominako 26 kontzeptu aztertu ditugu<sup>12</sup>, guztira 963.404 erregistrotan jasoak, 32.595 laguni dagozkienak, guztira 571,10 milioi euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori urte osoan NFKAko langileek kontzeptu horiengatik sortutako nominaren guztizkoaren % 43 da.

Egiaztatu dugu aztertutako langileek egoki jaso dituztela aztertutako ordainsari-kontzeptu guztiak, plantillan ezarritakoari jarraituz.

### 5.5. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 827,29 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 15 egiten dute; horietatik ehuneko 50 Osasun Departamentuari dagozkio, eta ehuneko 19, berriz, Eskubide Sozialetako Departamentuari.

Hona hemen aurrekontuko artikuluen arabera xehakapena eta haren eta 2021ekoaren arteko konparazioa:

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebehargarbiak, 2021	Aitortutako betebehargarbiak, 2022	(milakotan) 2022/2021 aldea (%)
Errentamenduak eta kanonak	49.877	85.541	72
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	20.886	22.199	6
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	470.994	506.426	8
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	2.826	4.136	46
Argitalpen-gastuak	385	411	7
Osasun laguntzako itunak	67.701	65.194	-4
Gizarte Zerbitzuen Zorroan bermatutako gizarte zerbitzuak kudeatzea	131.079	143.378	9
<b>Gastua, guztira</b>	<b>743.748</b>	<b>827.285</b>	<b>11</b>

<sup>12</sup> Berrikusitako kontzeptu nagusiak honako hauek dira: maila, destinoa, arriskua, txandakako lana, lanpostua, zuzendaritza-lanpostua, irakaskuntzako lanpostu espezifikoak, eskusibotasuna, bateraezintasuna, lanaldiaren luzapena eta arrisku berezia. Halaber, gradua, antzintasuna eta oinarrizko soldatari lotutako hainbat kontzeptu aztertu dira.







Kapitulu honetako gastuak % 11 (83,54 milioi) handitu dira. Artikulu guztietako gastuak hazi dira, osasun laguntzako itunen gastua izan ezik, hori 2,51 milioi jaitsi baita.

- Errentamendu eta kanonetako gastuaren % 72ko (35,66 milioiko) gehikuntza nabarmentzen da. Horren eragile nagusia kanonetako gastua izan da, oro har 32,43 milioi hazi baita. Izan ere, gastua 6,83 milioi handitu da Pirinioetako A-21 autobian eta 25,62 milioi Iruña-Logroño A-12 autobian.

Kanonetako gastuaren igoera azaltzeko, ordea, 2020-2022 aldiaren testuinguruari begiratu behar zaio. Datuak honako taula honetan daude:

Kanona	2020	2021	2022
Donejakue Bideko autobia	49.523	29.121	54.723
Pirinioetako autobia	18.991	13.793	20.625
<b>Guztira</b>	<b>68.514</b>	<b>42.914</b>	<b>75.348</b>

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, 2020an trafikoa nabarmen urritu zen eta bi autobietako likidazioak negatiboak izan ziren. Aplikatu beharreko emakida-kontratuen arabera, likidazio horiek hurrengo ekitaldian konpentsatzen dira, eta funtsean horrexegatik jaitsi zen 2021ean bi kontzeptu horietako gastua.

Badira zenbateko txikiago horren beste arrazoi batzuk, hala nola KPIaren 2020ko alde 2021ean aplikatuta tarifak 0,5 jaitsi izana, edo trafikoa urritu izana 2020an, datu hori 2021eko konturako ordainketak kalkulatzeko erabiltzen baita.

Normaltasunera itzuli ondoren, 2022ko datuak pandemiaren aurretik izandakoen antzekoagoak dira.

Aurreko gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko partidek 11 hilabeteren fakturazioa jasotzen dutela (urtariletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiko abenduko fakturazioa eta ekitaldi horretako likidazioa ere. Hartara, 2022. urteari egotzitako 2021eko gastua 4,56 milioikoa izan zen, eta 2023ko aurrekontuan erregistratutako 2022ko gastua, berriz, 5,58 milioikoa.

- Material, hornidura eta bestelakoetan egindako gastuaren gehikuntza ere esanguratsua izan da. Gastu hori 35,43 milioi hazi da aurreko ekitalditik, eta alde % 8koa izan da. Artikulu horren barruan, 2022a baino lehenagoko adjudikazioetan jatorria duten gastu hauen betetzea aztertu da:

Gastua	ABG, 2022
"NFKAren sistema informatikoetarako bigarren mailako laguntza tekniko" kontratuaren luzapena	5.941.890
O-NOZen erantzukizun zibileko eta ondare erantzukizuneko aseguruia	3.438.589

Eginiko berrikuspenaren emaitza zuzena da.





**Kontratazio-espedienteen lagin baten azterketa**

NFKAk, NICDOk, NILSAk, NEKPk eta CENER Fundazioak izapidetutako kontratazio-espediente hauek fiskalizatu ditugu:

Xedea	Mota	Prozedura	Lizitzaile kop.	Adjudikazio zenbatekoa	Beharpena adjudikazioan (%)
Larrialdiko espedientea, COVIDaren PCR probetarako laginak hartzeko materialaren hornidura kontratatzeko O-NOZeko zentroetarako	Hornidura	Larrialdiko espedientea	9*	2.698.117	0
Glukosa monitorizatzen flash-free style gailuen hornidura O-NOZeko zentroetarako	Hornidura	Negoziatua, lizitazio deialdirik gabe	1	2.399.017	4,8
NFKA eta O-NOZ gas naturalez hornitzeko esparru-akordioa	Hornidura	Esparru-akordioa	2	**	**
Bidaiderik gabeko adingabeen babesaren testuinguruan balorazioa egiteko 40 plaza misto kudeatzeko zerbitzua	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea eginda	2	1.362.635	4,1
Foru Komuniteterako telelaguntza zerbitzua, eta etxeko laguntzarako material teknikoaren erosketak	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea eginda	6	9.169.225	15,2
Ibilgailuen renting-a O-NOZerako	Hornidura	Negoziatua, lizitazio deialdirik gabe	1****	2.627.454	5
Lizentzia informatikoak NFKAren sozietate publikoentzat (NEKP)	Hornidura	Erosketa-sistema dinamikoak	16***	***	***
Autodesk softwarea berritzea eta laguntza harpidetzea (Nilsa)	Zerbitzuak	Sinplifikatua	2	20.996	19,7
Eski eskolak eta eski-gordelekuak (Nicdo)	Zerbitzuak	Negoziatua, lizitazio deialdirik gabe	1	210.511	0
Hidrogeno tresneriaren hornidura (CENER Fundazioa)	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea eginda	2	214.500	0,9

\*Egindako prozeduraren ondorioz, kasu honetan ez dago lizitzaileirik, zuzeneko adjudikazio-hartzaileak baizik

\*\*Esparru-akordioa denez, adjudikazio-hartzaileak hautatu besterik ez da egiten, zenbateko globalik ezarri gabe.

\*\*\* Erosketa-sistema dinamikoak denez, prozesuak irekita jarraitzen du bere iraunaldi osoan (4 arte), hautatzeko irizpideak betetzen dituzten enpresa edo profesional guztientzat. Bestalde, erosketa-prozesu bakoitzeko kontratu bat egiten da, eta adjudikazio irizpide ezberdinak aplikatzen dira hura adjudikatzen, zenbatetsitako balioa Europako atalasetik beharkeoa edo gorakoa den.

\*\*\*\* Eskaintza aurkezteko eskaera bidali zitzaizen bost hornitzaile. Batek bakarrik aurkeztu zuen eskaintza.

“COVIDaren PCR probetarako laginak hartzeko materialaren hornidura O-NOZeko zentroetarako” izeneko espedientea O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen 1173/2022 Ebazpenari dagokio, zeinaren bidez onesten baitira apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legearen babesean izapidetutako espedienteko jarduketak; lege horren arabera, COVID-19ari aurre egiteko izapidetu beharreko kontratu guztiei aplikatzeko zitzaizen izapide hori. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak agintzen duenez, behin burututa larrialdi espediente bateko jarduketak, kontratazio organoak onetsi beharko ditu jarduketa horiek eta dagoen gastua; izapide hori bete da aipatu ebazpenean.

COVID-19aren ondorioz O-NOZen egindako larrialdiko espedienteak onetsi beharri dagokionez, azpimarratzen dugu 46 espediente onetsi direla (aztertu





duguna barne), guztira 31,06 milioikoak, 2020-2022 aldian<sup>13</sup>, eta horietatik 36 espediente argitaratu direla kontratazioaren atarian.

Halaber, O-NOZek emandako informazioaren arabera, dagoeneko izapidetu diren espedientez gain, larrialdi gisa formalizatzeko daude beste 38 milioiko balio zenbatetsia duten jarduketa batzuk; une hauetan izapidetze fase ezberdinetan dituzte, eta espero dute denak amaitu ahal izatea 2024ko ekitaldian zehar.

Beste alde batetik, aipatutako kontratazio-espedienteak aztertuta, ondorioztatu dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela eta haiek betetzearen ondoriozko gastuak behar bezala erregistratuta eta kontabilizatuta daudela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- CENER Fundazioak adjudikatutako “Hidrogeno tresneriaren hornidura” izeneko kontratuan ez da jaso sortatan ez zatitzearen justifikaziorik.

- “Glukosa monitorizatzeko flash-free style gailuen hornidura O-NOZeko zentroetarako”, izeneko kontratuan, amaierako exekuzioa % 11,34 (271.952 euro) desbideratu da adjudikazioaren zenbatekotik. Horretarako alde zuzenetatik kontratuan aldaketa egin behar zen nahitaez, baina ez da halakorik formalizatu. Gainera, baldintza-agirietan ez da kontratua aldatzeko aukerarik agertzen.

Bestalde, kontratuei buruzko araudiak kontratuaren ebaluazio-txostena egiteko eskatzen du, eta ez da halakorik egin<sup>14</sup>.

- Nicdok adjudikatutako “Eski eskolak eta eski-gordelekuak” izeneko kontratuan inkongruentziak atzeman dira baldintza-agirietan, hain zuzen ere eskaintza baxuegiak zehazteko moduari eta eskaintza ekonomikoak baloratzeko formulari buruzko ataletan. Lizitzaile bat baino gehiago aurkeztu izan balira, akats horiek eragina izan zezaketen adjudikazioan.

- “Ibilgailuen renting-a O-NOZerako” izeneko kontratutik honako hauek azpimarratzen ditugu:

- a) Sorta bakoitzeko gehieneko zenbatekoa zehaztu den arren, ez da zehaztu unitateko gehieneko preziorik kontratazioaren baldintza-agirietan.

- b) Kontratua adjudikatzeko epean 162 eguneko atzerapena izan da.

Horren guztiaren ondorioz, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Kontratuak sortatan zatitzea egoki ez den kasuetan, zatiketa hori ez aplikatzea justifikatzea.*

- *Kontratuak aldatzeko legez eskatzen diren betekizunak errespetatzea.*

<sup>13</sup> 17 espediente 2020an, 24 espediente 2021ean eta 5 espediente 2022an.

<sup>14</sup> Baldintza hori kontratu guztiek bete behar dute munta txikikoek izan ezik.





- *Kontratu bakoitza amaitutakoan betetzeari buruzko ebaluazio txostena ematea.*
- *Kontratuen adjudikazioan atzerapen nabarmenik ez izateko neurri egokiak hartzea.*

## 5.6. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak

### *Transferentzia arruntak*

2022an emandako transferentzia arruntek 2.298,91 milioi euro egin zuten. Aitortutako betebeharren guztizkoaren % 41 izan ziren. Gastu horiek % 31 egin zuten gora 2021ekoekin alderatuta, ondoren erakusten dugun bezala:

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebehar garbiak, 2021	Aitortutako betebehar garbiak, 2022	(milakotan)
			2022/2021 aldea (%)
Estatuko Administrazioari	534.927	882.687	65
Fundazioei	12.454	13.712	10
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	107.480	114.579	7
Beste autonomia erkidego batzuei	19	-	-100
Toki entitateei	340.835	368.869	8
Enpresa pribatuei	172.557	304.604	77
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetara	582.996	614.407	5
Kanpora	33	51	56
<b>Guztira</b>	<b>1.751.301</b>	<b>2.298.909</b>	<b>31</b>

Izandako gehikuntza (547,61 milioi) Estatuko Administrazioarentzako transferentziak handitu izanari zor zaio funtsean, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren ondorioz. Handitze horrek ekarpenari eragin dio 2022an, gastuen kapitulu honetan beheragoko atal batean berariaz zehazten den bezala.

Beste alde batetik, enpresa pribatuei egindako transferentzia arruntak % 77 (132,05 milioi) handitu dira, funtsean, “Erregai kontsumorako hobaria”<sup>15</sup> partida sortu eta gauzatu delako, Ukrainako gerraren ondorioak direla-eta onetsitako neurriak berari egozteko.

#### *5.6.1. Erregaien kontsumorako hobaria.*

Enpresa pribatuentzako transferentzia hauek zuzeneko laguntza batzuen bitartez gauzatu dira gehienbat. Estatuak martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege-dekretuan onetsi zituen laguntza horiek, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen

<sup>15</sup> Zenbait produktu energetikoren azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria.





baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren baitan. Zenbait produktu energetiko eta gehigarriren publikoarentzako salmenta-prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria da horietako bat.

Errege dekretuak 0,20 euroko hobaria ezarri zuen produktu hobaridunaren litroko edo kilogramoko, publikoarentzako salmenta-prezioan aplikatzekoa. Hobari hori 2022ko apiriletik ekainera bitarteko hilabeteetarako arautu zen, baina gero ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuak 2022ko abendura arte luzatu zituen haren ondoreak. Halaber, errege lege-dekretu horrek konturako aurrerakinen osagarri bat onetsi zuen zenbait ordainketa doitzeko, 2021eko salmenten arabera kalkulatuak zirelako, zeinak COVID-19aren pandemiaren eraginpean baitzeuden, edo laguntzailea urte horretan alta emanda egon ez zelako.

Aipatu arau-esparruan, NFKAri eskumena ematen zaio hobarien kudeaketarako eta itzulketarako, bai eta laguntzaileei (nagusiki, erregai-zerbitzuguneei) konturako aurrerakinak emateko ere, hobaria duten produktuekin Nafarroako Foru Komunitatean egindako hornidurei dagozkienak.

Kudeaketarako eta itzulketarako prozedura 46/2022 eta 71/2022 foru aginduetan arautu zen.

Nafarroako Gobernuaren 2022ko apirilaren 6ko Erabakiak ezarri zuen Ekonomia eta Ogasun Departamentuak izanen zuela eskumena hobariak kudeatzeko eta izapidetzeko. Departamentu horren egituraren barruan, arlo horretako unitate eskuduna Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoa da (aurrerantzean, NZO).

NZOk lan hauek egin ditu: konturako aurrerakina eta osagarria kalkulatzea, itzultzeko eskaerak bideratzea, eta laguntzaileek azken kontsumitzaileei aurreratutako zenbatekoa ordaintzea.

Hobaria finantzatze aldera, aparteko kredituak onetsi ziren 2022ko eta 2023ko aurrekontuetan, guztira 156 milioikoak. Honela bete dira hobariarekin zerikusia duten gastuetako eta diru-sarreretakako partidak:

Urtea	Aitortutako betebeharrak	Betetzea (%)	Ordainketak	Betetzea (%)
2022	140.592.538	95	139.892.595	100
2023	7.707.337	97	7.707.337	100
Guztira	148.299.875	95	147.599.932	100

Urtea	Aitortutako eskubideak	Betetzea (%)	Kobrantzak	Betetzea (%)
2022	49.334.118	33	49.334.118	100
2023	98.550.002	67	98.550.002	100
Guztira	147.884.120	100	147.884.120	100

Estatuko Administrazio Orokorrak NFKAri ordaindu dio 2022ko apiriletik abendura bitarteko hilabeteetan hark ordaindutako hobarien zenbatekoa.





Alabaina, bai konturako aurrerakinak bai hileroko itzulketak erregularizatu egin behar dira hobaria aplikatzen den azken hilabetean, hau da, 2022ko abenduan. Laguntzaileek informazioa igortzen diote Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (aurrerantzean, MLBN), azken kontsumitzaileei saldutako produktu hobaridunen bolumenari buruz. Nafarroako Zerga Ogasunak aztertzen du ea bat datozen MLBNk igorritako datuak eta aurkeztutako itzulketa-eskaerak, eta amaierako doikuntza egiten du.

Jasorik dago amaierako doikuntza baten zenbatespen bat zeinak berekin baitakar laguntzaileei 4,87 milioi itzultzeko eskatzea aurrerakinengatik, aurrerakinen osagarriengatik eta hileroko itzulketengatik, hainbat arrazoi tarteko. Txosten hau eman den egunean hasi gabe dago itzulketa-eskaeren prozedura.

Jasorik daude, halaber, zazpi laguntzailerri dagozkien 32 itzulketa-eskaera, 2,70 milioikoak guztira. NZOk berrikusteko fasean daude.

Egin dugun azterketatik ondorioztatzen dugu errege lege-dekretuetan xedatutakoari lotu zaizkiola bai aurrerakinak, bai osagarriak eta itzulketak.

### *5.6.2. Diru-sarrera eta ondasun gutxi dituzten pertsona fisikoentzako 200 euroko zuzeneko laguntza*

Arestian aipatutako ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuak diru-sarrera eta ondare urriko pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntzen lerro bat ezarri zuen, beste laguntza batzuen artean. Laguntza hori (200 euro ordainketa bakarrean) pertsona fisikoentzat zen, soldatako langile, autonomo nahiz langabe, beste gizarte prestazioren bat jasotzen ez bazuten, hala nola kotizaziopeko pentsioa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera edo kotizaziorik gabeko erretiro edo baliazintasun pentsioa.

Erregaietarako hobarien kasuan bezala, Foru Administrazioari eskumena eman zitzaion laguntza horiek izapidetzeko eta kudeatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko onuradunentzat. Agindu hori betez, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren uztailaren 20ko 80/2022 Foru Agindua onetsi zen, laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko prozedura arautze aldera.

Guztira 8.082 eskaera aurkeztu ziren; horietatik 2.989 onartu ziren eta 5.093 ezetsi. 2022an 585.200 euro aitortu dira, guztira, 2.926 onuradunentzat, eta gainerako 63 onuradunak 2023ko aurrekontuari egotzi zaizkio.

Aztertu dugun laginetik ondorioztatu dugu laguntzak egoki kudeatu direla.

### *5.6.3. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa*

Nafarroak, bere foru araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributujarduera. Hitzarmen hori





abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago. Hitzarmen horrek tributu harmonizaziorako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak –Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamengatik eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako– egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere. Ekarpen hori bost urteko epeetarako ezartzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomiko indardunak hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusten du ezen, Estatuko ordenamendu juridikoan funtsezko erreformaren bat gertatzen bada, bi administrazioek, ados jarrita, Hitzarmen Ekonomikoa moldatu edo egokituko dutela.

Hitzarmenaren azken aldaketa ekainaren 24ko 14/2015 Legeak egin zuen, eta geroztik zenbait berrikuntza egin dira Estatuko zergen arloko ordenamendu juridikoan,<sup>16</sup> Hitzarmenaren egokitzapena eskatzen zutenak. Zerga figura berrien egokitzapen hori eta 2020-2024 bosturtekorako metodologia berria planteatzen duten beste alderdi oso garrantzitsu batzuk gauzatu dira urriaren 19ko 22/2022 Legea onestean, zeinak aldatzen baitu aipatutako abenduaren 26ko 28/1990 Legea. Aldaketa horrek eragina du Estatuarentzako ekarpenean, aurrekontu-gastu gisa, eta zerga-bilketaren doikuntzetan, aurrekontuko diru-sarrerara gisa.

2020an beste bosturteko baten oinarrizko ekarpena ezarri behar zen. Ez 2020rako ez 2021erako onartu ez zenez, bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatu behar zen. Xedapen horren arabera, bosturtekoaren oinarriztat hartu behar den ekarpena ez bada epe barruan onartzen, zenbatekoa ekitaldi horretarako finkatuko da eguneratze-indizea aplikatuta, adostutako azken bosturteko urte bat balitz bezala.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2020an eta 2021ean Estatuarentzako behin-behineko ekarpena kalkulatu zen eta hala 534,93 milioiko ekarpena ezarri zen 2021erako.

2022ko abenduaren 2an, azkenik, Hitzarmena Koordinatzeko Batzordeak 2020ko ekitaldiko behin betiko ekarpena eta 2020-2024 aldirako finantza-harremanak adostu zituen. Batzordearen bilkura horretan, zerga-bilketaren doikuntzak kuantifikatzeko eta likidatzeko metodologia 2020-2024 aldirako eguneratzeko akordio bana lortu zen balio erantsiaren gaineko zergarako eta fabrikazioaren gaineko zerga berezietarako. Abenduaren 26ko 28/1990 Legea aldatzen duen urriaren 19ko 22/2022 Legeak egindako aldaketen osagarri izan ziren akordio horiek.

Garrantzitsua da azpimarratzea Estatuarentzako behin-behineko ekarpenen zenbatekoak eta doikuntza fiskalak egiteko erabilitako metodologia, 2020ko eta

---

<sup>16</sup> Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte balioaren gaineko zerga; hondakinak hondakindegietan uztearen, erraustearen eta baterako erraustetaren gaineko zerga; zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga, eta finantza-transakzioen gaineko zerga.





2021eko ekitaldian, araudi berriak ezartzen duenaz bestelakoa izan zela, eta ondorioz hainbat erregularizazio eta doikuntza egin direla bai aurrekontuko gastuetan bai diru-sarreretan. Horrek badu isla 2022ko aurrekontuetan.

Arrazoi horrengatik, 2021arekiko alderaketa bere testuinguruan kokatu eta informazio osagarria erabili behar da, datuak modu ahalik eta homogeneoenean alderatu ahal izateko. Taula honetan erakusten ditugu Hitzarmenarekin zerikusia duten gastuen eta diru-sarreraren 2022ko guztizko zenbatekoak, 2021ekoekin alderatuta:

	(milakotan)	
Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2021	2022
Estatuarentzako behin-behineko ekarpena	534.927	738.845
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa, 2021	-	143.841
<b>Gastu-partiden guztizkoa - Hitzarmena</b>	<b>534.927</b>	<b>882.687</b>
PFEZeko lanaren eta kapitalaren etekinen atxikipenengatiko doikuntza	0	303.075
BEZarengatiko doikuntzak	1.027.452	1.363.868
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	-27.819	-41.383
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	5.094	6.902
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	21.876	6.352
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	103.003	165.714
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa (2018, 2019 eta 2020)	0	22.802
<i>PFEZeko atxikipenen, BEZaren eta zerga berezien ondoriozko doikuntzak, guztira</i>	<i>1.129.606</i>	<i>1.827.330</i>
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren diru-sarreretan	102	114
<b>Diru-sarreraren partidak, guztira - Hitzarmena</b>	<b>1.129.708</b>	<b>1.827.443</b>

• Hitzarmenaren ondoriozko 2022ko guztizko gastuak 882,69 milioikoak dira, eta horietan honako kontzeptu hauek bereizi behar dira:

- a) 2022rako ezarritako Estatuarentzako behin-behineko ezarpena, 738,85 milioikoa. Zenbateko horretan, aipatu beharra dago Hitzarmenaren aldaketak ekarritako metodologia berriarekin ez direla ekarpenetik deskontatzen lanaren eta kapitalaren atxikipenak; aitzitik, diru-sarrera gisa kontabilizatzen dira. Beraz, 2022ko atxikipenen 117,38 milioiak jada ez dira ekarpenetik kentzen, aitzitik, diru-sarrera gisa konpentsatzen eta kontabilizatzen dira.
- b) Behin-behineko ekarpenen eta 2022an behin betiko erabaki direnen arteko aldeek bi motatako likidazioak eragin dituzte:

- 2021eko ekarpenak Estatuaren aldeko 143,84 milioiko saldoa sorrarazi du 2022an likidatu beharrekoa. Izan ere, 2021erako ezarritako behin betiko ekarpena 678,77 milioikoa izan zen, eta aurretik 534,93 milioiko behin-behineko ekarpena zegoen ezarrita. Beraz, gastu handiago gisa konputatu da 2022an.







- 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako ekarpenek Nafarroaren aldeko 22,80 milioiko saldoa sortu dute, ezarri diren behin betiko ekarpenak txikiagoak izan direlako aurretik ezarri ziren behin-behineko ekarpenak baino. Beraz, diru-sarrera handiago gisa konputatu da 2022an.

• Hitzarmenaren ondoriozko 2022ko guztizko gastuak 1.827,43 milioikoak dira, eta horietan honako kontzeptu hauek bereizi behar dira:

- a) PFEZeko lanaren eta kapitalaren atxikipenengatiko doikuntzak<sup>17</sup>, 303,08 milioikoak. Horietan bereizi behar dira batetik ekitaldiko 117,38 milioiko doikuntzak, gorago aipatutakoak, eta bestetik 2020ko eta 2021eko ekitaldietako lanaren eta kapitalaren atxikipenei dagozkien 185,70 milioiak.
- b) BEZaren eta zerga berezien ondoriozko doikuntzak, guztira 1.501,45 milioikoak, barruan hartzen dituzte 2022ko doikuntzak eta 2020ko eta 2021eko ekitaldietako erregularizazioei dagozkienak.

Beheko taulan, egungo metodologia lehengoarekin parekatzen saiatzeko helburuz, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren ondoriozko finantza-fluxuak 2022an izandako eragina azaltzen da:

	(milakotan)
<b>Hitzarmen Ekonomikoa. Finantza-fluxuak, guztira. 2022</b>	
<b>Doikuntza fiskalak</b>	
BEZa (2020-2022)	1.363.868
Zerga bereziak (2020-2022)	137.585
<b>Zeharkako zergengatiko doikuntzak</b>	<b>1.501.453</b>
<b>Beste diru-sarrera batzuk</b>	
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren diru-sarreretan	114
<b>Ekarpen ekonomikoa</b>	
Behin-behineko ekarpena	882.687
- Nafarroaren aldeko likidazioa (2018-2020)	-22.802
- Lanaren eta kapitalaren atxikipenengatiko doikuntza (2018-2022)	-303.075
<b>Ekarpen garbia</b>	<b>556.810</b>
<b>Nafarroaren aldeko saldo garbia 2022an</b>	<b>944.756</b>

<sup>17</sup> Estatuak egin ditu lanaren eta kapitalaren atxikipen horiek, baina Nafarroarentzako diru-sarrerak dira.







### Kapital-transferentziak

2022an aitortutako kapital-transferentziak 207,43 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien % 4 egiten dute, eta % 44ko igoera (63,83 milioikoa) izan zuten 2021ekoekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

(milakotan)

Kapital-transferentziak	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2021	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2022	2022-2021 aldea (%)
Fundazioei	4.646	4.109	-12
Enpresa publikoak eta beste ente publiko batzuei	5.158	10.023	94
Toki entitateei	30.263	84.617	180
Enpresa pribatuei	51.852	57.335	11
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundei	51.681	51.342	-1
<b>Guztira</b>	<b>143.600</b>	<b>207.426</b>	<b>44</b>

Toki entitateentzako transferentziak igoera nabarmena izan dute, % 180koa (54,35 milioi), batez ere Toki Inbertsioen Planera bideratu den diru kopuruaren ondorioz. Izan ere, plan horrek 36,37 milioiko gauzatzea izan du 2022an, eta 2,98 milioiko gauzatzea baino ez zuen izan 2021ean, ohiz kanpoko maila baxua.

### 5.7. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioak

2022ko inbertsioak 198,29 milioi eurokoak izan ziren, aitortutako betebeharrak guztien % 4, hain zuzen, eta % 78ko betetze-maila izan zuten. Hurrengo taulan ageri da 2021eko gastuarekiko erkaketa:

(milakotan)


Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2021	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2022	2022/2021 aldea (%)
Lurrak eta ondasun naturalak	638	510	20
Obra publikoak	77.226	89.147	15
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	34.772	40.368	16
Makinak, instalazioak eta tresnak	3.260	2.489	16
Garraio materiala	2.260	3.317	47
Altzariak eta tresneria	13.871	23.132	63
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	9.145	8.101	11
Bestelako ibilgetu materiala	2.338	2.746	17
Ibilgetu ez-materiala	26.245	24.481	9
<b>Guztira</b>	<b>169.755</b>	<b>198.290</b>	<b>17</b>

Inbertsioen % 45 (88,49 milioi) Lurralde Kohesiorako Departamentuari dago, inbertsioen % 21, berriz, Osasun Departamentuari (41,18 milioi), eta inbertsioen % 11 Hezkuntza Departamentuari (22,25 milioi).





Inbertsioek 2013-2022 bitartean izandako bilakaeraren berri honako taula honetan ematen da:



Ikus daitekeenez, 2022an inbertsioen bolumenak gorantz jarraitu du, 2018ko ekitaldian izandako inflexio puntua gaindituta.

2021eko ekitaldiko kontu orokorreko buruzko txostenean nabarmendu egin genuen inbentarioa berrikusi eta eguneratzeko prozesua, Kontabilitate Orokorraren eta Aurrekontuetakoaren Zerbitzuak Ondare Zerbitzuarekin elkarlanean egindakoa ibilgetuaren atal hauetan: lurrak, eraikuntzak, ondare historikoko eraikuntzak, egiten ari diren eraikuntzak eta salgai dauden aktiboak.

Gainera, zerbitzuak elementu horien birsailkapena egin zuen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko azpiegituraren arabera, eta zehaztu zituen elementu bakoitzari aplikatu beharreko amortizazio irizpideak, aztertutako osagaiei zegokien amortizazioa kalkulatzu.

Aztertutako atalen amaierako zenbatekoa 1.172,47 milioi izan zen 2022ko abenduaren 31n.

Prozesu hori aztertuta, Ganbera honek aurreko txostenean azaldutako iritziari eusten dio: oro har, prozesua zentzuzkotzat jotzen dugu, balantzean jasotako zenbatekoak egokiak dira eta aipagai dituzten elementuen irudi zehatza ematen dute. Hala ere, zenbait elementuarekin Ondare Zerbitzuak 2021aren aurretik egindako altetan oraindik ere bereizi gabe dago elementuaren zein zati den lursaila eta zein dagokien eraikuntzei. Nahiz eta zenbait kontutan azpiatalak egin diren eraikuntzen zatiari soilik dagokion amortizazioa zuzkitu ahal izateko, oraindik beharrezkoa da horrelako elementuen etorkizuneko altetan bi zatiak bereiztea amortizazioaren kontabilizazioa errazteko.





*Gomendatzen dugu ibilgetuaren altetan eraikuntzei dagokien zatia eta lursail-  
lei dagokiena bereiztea, beharrezkoa den guztietan, haien amortizazioa behar  
bezala zuzkitu ahal izateko.*

### **Kontratazio-espedienteen lagin baten azterketa**

NFKAren, Nasuvinsaren, Nilsaren eta Naserticen inbertsioen kontrataziorako  
espedienteen eta 2022an ekarri dituzten gastuen lagin bat aztertu dugu. Hona  
espediente horien xehetasunak:

Xedea	Prozedura	Lizitatzailerik kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Behar- pena (%)
SAKANA IBPko sarrera nagusiaren irisgarritasuna hobetzea	Sinplifikatua	2	116.777	4,8
Irisgarritasuna hobetzea –sarrera nagusia– Iruñeko Gurutzeko Plaza BHIan	Sinplifikatua	4	83.319	8,9
Mugairiko zainketa zentroaren menpeko errepideen zainketa integrala, 2022-2026	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	2	12.997.554	5,6
NA-128 errepidea (Caparroso-Mélida, Nafarroa) zabaldu eta hobetzea	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	5	10.099.640	5
Rozalejoko markesaren jauregia zaharberritzea	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	3	6.371.485	3,1
Iratxeko monasterioan (Aiegi) Errenazimentuko klausuroaren ekialdeko hegaleko estalkiak konpontzea	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabe	3	149.139	20
Artziko jauregiko zerbitzu-azpiegiturako obrak, 1. fasea: Nagore-Angordioko hondartza	Sinplifikatua	1	100.496	2,3
Artziko jauregia zaharberritzea	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabe	2	2.017.321	1,1
Concepción Benitez 12ko eraikinaren zati bat egokitztea Arreta Goiztiarreko Zentrorako eta Pilar Gogorcena Eguneko Zentrorako (II. fasea)	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabe	4	2.230.076	10
Ubarmin klinikako beheko solairuko estalkia zaharberritzea.	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	2	3.652.116	15,2
Erripagañako BF1 lurzatian alokairurako babes ofizialeko 93 etxebizitza eraikitzea , BF1 lurzatia urbanizatztea eta BF1.1 eta BF1.2 azpilurzatietan mazelari eustea (Nasuvinsa)	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	4	6.350.581	1,43
Azpilagaña auzoan 60 urtetik gorakoentzako alokairuko 32 apartamentu babestu, haien lokal komunak eta udal lokalak eraikitzea (Nasuvinsa)	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	5	8.794.445	2,3
TLDs-tik FTTH RF Overlay-ra migratzeko obrak Irurtzunen eta Eulaten (Nasertic)	Sinplifikatua	3	111.834	8,1
Olaztik HUA birmoldatzea (Nilsa)	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabe	3	1.898.967	11





Oro har, aipatutako kontratuak adjudikatzeko espedienteak araudiaren arabera izapidetu dira eta haiekin zerikusia duten 2022ko gastuak behar bezala kontabilizatuta daude. Hala ere, gorabehera hauek azpimarratu behar ditugu:

- “Iratxeko monasterioan (Aiegi) Errenazimentuko klaustroaren ekialdeko hegaleko estalkiak konpontzea” izeneko kontratuan aldaketa bat egin zen. Aldaketa hori ez zen argitaratu Nafarroako Kontratazioaren Atarian. Halaber, fidantza osagarria urtebeteko atzerapenarekin gordailutu zen.

- “Eraikin baten zati bat egokitzea Arreta Goiztiarreko Zentrorako eta Pilar Gogorcena Egunekeko Zentrorako (II. fasea)” izeneko kontratuan, bi ziurtagiriren ordainketa 30 eguneko ordainketa-epea igarotakoan egin da.

- Nasuvinsak adjudikatutako “Erripagañan alokairurako babes ofizialeko 93 etxebizitza eraikitzea” izeneko kontratua 2021ean jatorria duen adjudikazio bati dagokio eta hiru sortatan zatituta dago. 2. eta 3. sortak adjudikatu gabe gelditu ziren eta 1. sorta adjudikatu zen.

Iruñeko Udalaren zenbait obra-lizentzia eta errekerimendu tarteko, kontratazio organoak eskaintza ekonomikoa ireki eta handik 312 egunera egin zuen adjudikazioa. Beraz, kontratuei buruzko araudian ezarritako hilabeteko gehieneko epea gainditu zuen. Adjudikazio-hartzaileak uko egin zion kontratuari, ezin zuelako gauzatu, prezioen gorakada zela-eta.

- Nasuvinsak adjudikatutako “Azpilagañan alokairurako babes ofizialeko 32 etxebizitza eraikitzea” izeneko kontratua eskaintza ekonomikoa ireki eta handik bi hilabetera adjudikatu zen, kontratuei buruzko araudian ezarritako epea gaindituta.

Obrak atzeratu egin dira eta 2023ko ekitaldian hasi dira, Nafarroako Gobernuak berandu kalifikatu dituelako etxebizitzak eta Iruñeko Udalaren obra-lizentzia eskuratu behar izan delako.

- Kontratuak banaka aztertuta azpimarratu ditugun gorabeheraz gain, honako hauek kontratu batean baino gehiagotan agertu dira:

- a) Kontratuaren objektuarekin zuzenean lotuta ez dauden exekuzio baldintza bereziak aurreikusten dira. Halaber, ez dago jasorik baldintza horien betetzea egiaztatu denik.
- b) Adjudikazioaren argitalpena Kontratazioaren Atarian iragarri behar da, bost eguneko epean, kontratuaren adjudikazioaren eraginkortasuna etenda dagoen epea amaitzen denetik hasita. Zenbait kontratutan, etenaldi hori amaitu baino lehen iragarri da adjudikazioa.
- c) Baldintza-agirietan ezarritako adjudikazio irizpideetako bakoitzak bere puntuazioa dauka esleituta, baina puntuazio hori ez dago jasorik geroko balorazioan erabiliko diren azpi-irizpide guztietan.





Hori guztia dela-eta, gomendio hauek egiten ditugu:

- *Kontratuen aldaketetan ezarritako betekizunak epean eta behar den moduan betetzea.*
- *Kontratuaren objektuarekin zuzenean lotutako baldintza bereziak ezartzea kontratua betetzeko, haiek betetzen diren zaintzea, eta hala jasorik uztea espedientean.*
- *Kontratuen etenaldia errespetatzea adjudikazioa argitaratu baino lehen.*
- *Adjudikatzeko azpi-iritzi bakoitzari bere puntuazioa esleitzea kontratazioaren baldintza-agirietan.*

## 5.8. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak

### Zergak

2022ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubide garbiek 4.910,45 milioi euro egin zuten. Eskubideen guztizkoaren % 83 egiten dute.

Ondoren, eskubide horiek erakusten ditugu zerga-figura bakoitzerako, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

Aurrekontuko artikulua	(milakotan)		
	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	2022/2021 aldea (%)
PFEZa	1.644.320	2.143.022	30
Sozietateak	320.390	369.547	15
Ez-egoiliarren errenta	2.097	3.446	64
Ondarea	36.501	31.768	-13
Oinordetzak eta dohaintzak	56.408	68.345	21
Banku-gordailuak	6.092	6.457	6
Energia-ekoizpenaren balioa	29.329	-597	-102
Saltoki handiak	2.372	2.503	6
Loterietako eta apustuetako sariak	3.936	4.080	4
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>2.101.445</b>	<b>2.682.572</b>	<b>25</b>
BEZa	1.461.283	1.616.899	11
Zerga bereziak	498.935	548.744	10
Kontsumoen gaineko beste zerga berariazko batzuk	-	-	-
Aseguru primen gaineko zerga	28.782	30.357	5
Ondare eskualdaketak	65.216	66.696	2
Egintza juridiko dokumentatuak	17.915	16.561	-8
Joko-jarduerak	1.894	1.620	-14
Berotegi-efektuko gas fluordunak	620	1.000	61
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>2.074.645</b>	<b>2.281.877</b>	<b>10</b>
<b>Guztira</b>	<b>4.176.090</b>	<b>4.910.449</b>	<b>18</b>





Azterketa egin ondoren, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Zergengatik aitortutako eskubideek % 18 egin dute gora 2021ekoekin alderatuta, eta 4.176,09 milioikoak izatetik 4.964,45 milioikoak izatera pasa dira. Zerga-figura gehienak hazi dira gutxi-asko, eta hauek dira igoera nabarmenenak: PFEZa % 30 (498,70 milioi) hazi da, sozietateen gaineko zerga % 15 (49,16 milioi), eta BEZa % 11 (155,62 milioi).

- PFEZari dagokionez, lanaren eta kapitalaren atxikipenengatik 2020-2024 bosturterako doikuntza fiskal berriek ekarri dute diru-sarrerak 303,08 milioi handiagoak izatea. Gainerakoa (195,63 milioi) zergaren bilakaera onari zor zaio.

- BEZari dagokionez, kontuan hartu behar da ea zerga horrengatik aitortutako eskubideak Nafarroaren zuzeneko kudeaketatik datozen edo Estatutik datozen, Hitzarmen Ekonomikoan zerga-figura horri buruz ezarritako doikuntzak direla-eta. Hona diru-sarrera horien jatorria banakatuta:

(milakotan)

Aitortutako BEZa	2020		2021		2022	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	398.522	34	433.831	30	253.031	16
Hitzarmeneko doikuntza	785.795	66	1.027.452	70	1.363.868	84
<b>BEZa, guztira</b>	<b>1.184.317</b>	<b>100</b>	<b>1.461.283</b>	<b>100</b>	<b>1.616.899</b>	<b>100</b>

Ikus daitekeenez, aitortutako eskubide gehienak Hitzarmeneko doikuntzen ondorioz sortu dira; doikuntza horiek, 2022an, 336,42 milioiko diru-sarrera handiagoak sortu dituzte, zenbatzeko metodologia aldatzearen ondorioz. Horren ondorioz, halaber, 2022an, NFOren BEZaren zuzeneko kudeaketa jaitsi egin da, eta 2021ean BEZarengatik eskubide guztien % 30 izatetik 2022an % 16 izatera igaro da.

Bestalde, 2022ko oroitidazkian, Ganbera honen gomendio bat aintzat hartuta, konpentsatu beharreko BEZaren zenbatekoari buruzko informazioa jaso da. “BEZ globala” deitzen zaio, eta ekitaldiaren itxieran 79,82 milioikoa da. “BEZ globala” bat dator BEZaren itzulketak edo konpentsazioak eskatzeko eskubidearen zenbatespenarekin. Lau urteren buruan preskribatzen da, ez da kontabilitate orokorrean islatzen, eta aurrekontuari egozten zaio itzultzen edo konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik NFOri ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada.

- Energia elektrikoa eta erregaia ekoitzi eta biltegitratzearen gaineko zergari dagokionez, 2021aren aldean % 102ko beherakada izan da, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldi batez etenda egon delako 2022an. 2022ko balio negatiboa garaiz kanpoko aitorpenei zor zaie, halakoetan itzulketak handiagoak izan baitira hasiera batean erregistratutako guztizko zerga-bilketa baino.

- CATetik kudeatutako eta orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatutako itzulketak 1.683,1 milioi eurokoak izan dira; zenbateko hori % 19 handiagoa izan





da 2021ekoa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien % 14 beste zor batzuekiko konpentsazioaren bidez egin dira.

Hurrengo taulan, 2022ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldian izandakoekin alderatuta:

	(milakotan)	
Zergen itzulketa <sup>18</sup>	2021	2022
BEZa, zuzeneko kudeaketa	1.086.632	1.365.518
PFEZa	239.853	208.120
Sozietateak	59.882	77.325

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketen bolumen handiena sortzen duena. 2022an guztizkoaren % 81 hartu du.

- Aurrekontua betetzeari buruzko oroitidazkian ez dago informaziorik uneko aurrekontuan eta itxitako ekitaldietako aurrekontuetan deuseztatu edo ezereztutako eskubideez. Borondatezko aldian nahiz betearazpen aldian eskatutako zerga-itzulketei, geroratzei edo zatikatzei buruzko informaziorik ere ez da ematen.

*Gomendatzen dugu aurrekontua betetzeari buruzko oroitidazkian behar den informazioa jasotzea zerga-bilketaren prozesuan eragiten duten egoera guztiei buruz.*

- Kontu orokorren oroitidazkiak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

	(milakotan)		
Zergak	Zerga onuren aurrekontua, 2022	Emaizak, 2022	Gauzatze ehunekoa
PFEZa	435.040	462.935	106
Sozietateak	105.785	131.280	124
Ondarea	25.305	26.855	106
Ez-egoiliarren errenta	4.599	-1.270	-28
Oinordetzak eta dohaintzak	9.663	12.255	127
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>580.392</b>	<b>632.055</b>	<b>109</b>
BEZa	778.615	941.971	121
Zerga bereziak	97.760	101.379	104
Aseguru primen gaineko zerga	12.715	11.223	88
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	7.512	8.377	112
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>896.602</b>	<b>1.062.950</b>	<b>119</b>
<b>Onura fiskalak, guztira</b>	<b>1.476.994</b>	<b>1.695.005</b>	<b>115</b>

Oroitidazkiak dakarren informazioaren arabera, 2022ko onura fiskalak 1.695 milioikoak dira; zenbateko hori % 15 handiagoa da aurreikusitakoa baino. Oroitidazkian ez da daturik ematen onura fiskal bakoitzarekin lortu nahi diren helburuei eta horiek bete izateari buruz.

<sup>18</sup> Diru-bilketa Zerbitzuaren txosten batean jasotako informazioa





Halaber, Ganbera honen txostenetan azken urte hauetan aipatu bezala, adierazgarria da onura fiskal horiek, 2022ko ekitaldian, onura fiskalik ez balego izanen genituzkeen aitortutako eskubide garbien % 29 izatea.

### Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Zerga Ogasunak Ganbera honi emandako informazioaren arabera, 2011tik 2022ra bitartean zerga iruzurraren aurkako borroka diru-sarrera hauek sortu ditu:

(milakotan)

Ekitaldia	Tributuen kudeaketa	Ikuskapena	Tributu arloko bestelako jard.*	Guztizko zenbatekoa	Indizea
2011	52.045	38.808	-	90.853	100
2012	58.648	69.499	-	128.147	141
2013	57.358	37.826	-	95.184	105
2014	56.137	28.681	-	84.818	93
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	115
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	137
2017	94.408	33.586	20.984	148.978	164
2018	88.961	53.993	27.154	170.108	187
2019	93.514	38.536	23.487	155.537	171
2020	56.782	27.154	74.380	158.316	174
2021	55.447	53.375	11.480	120.302	132
2022	69.864	33.098	74.394	177.356	195

\* 2015ean hasi zen bestelako tributu jarduketaren kontaketa.

Zerga iruzurraren aurkako borroka sortutako diru-sarrerek gorabehera nabarmenak izan dituzte, eta 2014an izan dute balio txikiena. Geroztik, ordea, gora egin dute eta 2022an 177,36 milioikoak izan dira, 2021ean baino % 47 apalagoak.







Taula honetan, 2021eko eta 2022ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak alderatuko ditugu, xehetasun handiagoz, NFOren oroitidazkian jasotako informazioaren arabera:

(milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2021		2022	
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	5.196	8.174	5.977	7.747
PFEZa	3.904	4.674	3.925	4.899
Sozietateak	936	4.163	954	3.585
Gainerako zergak	1.818	13.523	1.819	12.499
Zehapenak	15.216	7.286	17.715	8.869
Garaiz kanpoko aitortpenen errekarquak	3.345	880	5.734	1.886
Errekerimenduak	9.387	2.778	8.055	2.600
Kudeaketak eragindako diru-sarrerak	5.822	28.387	6.550	13.362
<b>Kudeaketa, guztira</b>	<b>50.729</b>	<b>55.447</b>	<b>45.624</b>	<b>69.864</b>
Ikuskapena	Jarduketa kop.	Zenbatekoa	Jarduketa kop.	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	4.856	16.875	3.675	12.598
Zehapen espedienteak	1.702	6.406	1.327	10.751
Erantzukizun zibila, delituengatik	2	18.439	3	4.195
Ikuskapenak eragindako erregularizazioak	24	9.360	55	3.071
Kreditu fiskalak deuseztatzea	63	2.293	57	2.483
<b>Ikuskapena, guztira</b>	<b>6.647</b>	<b>53.375</b>	<b>5.117</b>	<b>33.098</b>
Beste tributu-jarduketa batzuk	Jarduketa kop.	Zenbatekoa	Jarduketa kop.	Zenbatekoa
<b>Guztira</b>	<b>16</b>	<b>11.480</b>	<b>60</b>	<b>74.394</b>

2022an, “Beste tributu-jarduketa batzuk” atalak ekarri ditu diru-sarrera gehien. Berak izan du igoyerarik handiena ere aurreko ekitaldiaren aldean: 62,91 milioi (% 548) gehiago eta 46 jarduketa (% 288) gehiago. Hauek dira arrazoi nagusiak: zerga-egoitzaren aldaketak eta akta bakarrak zifra erlatiboaren araubidean tributatzeko duten enpresetan.

Bestalde, ikuskapenaren arloko jarduketak % 23 gutxitu dira 2021eko aldean (1.530 gutxiago), nagusiki “Erantzukizun zibila” atalean izandako beherakadaren ondorioz. Aurrekoari buruz adierazi behar dugu urtero norainoko ezberdineko jarduketa plan bat egiten dela eta lortutako sortzapenek ez dutela zertan joera baten arabera izan.

Tributuen kudeaketari dagokionez, 2022an 5.105 likidazio gutxiago egin dira 2021ean baino; halere, sortutako diru-sarrerak % 26 (14,40 milioi) handiagoak izan dira aurreko urtean baino.

Diru-sarrera horiek sortu izanak ez du esan nahi zenbateko horiek kobratu direnik. Arestian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketarako eta kontabilitaterako erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla-eta, ezin dugu identifikatu zerga iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki.



*Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk*

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 156,75 milioi eurokoak izan dira 2022. urtean. Ekitaldiko eskubide guztien % 3 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	2022/2021 aldea (%)
Tasak	11.742	16.191	38
Prezio publikoak	57.694	66.940	16
Ondasunak saltzea	2.108	2.488	18
Eragiketen itzulketak	21.323	14.615	-31
Beste diru-sarrera batzuk	58.690	56.510	-1
<b>Guztira</b>	<b>151.557</b>	<b>156.745</b>	<b>5</b>

Kapitulu honen osagairik aipagarriena prezio publikoen bidezko diru-sarrerei dagokie: 66,94 milioikoak izan ziren, eta horien artean nabarmentzekoak dira osasun zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak, 63,23 milioi egiten dutenak.

Bestetik, tasen bidezko diru-sarrerak 16,19 milioikoak izan ziren, eta horietatik 10,08 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie.

Honako hauek dira “bestelako diru-sarrerak” izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 23,83 milioi; errekaruak, 10,89 milioi; eta berandutze-interesak, 5,48 milioi.

- Diru-sarreraren honako partida hau aztertu dugu:

Prezio publikoak	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	2022/2021 aldea (%)
Adinekoen zentroetako erabiltzaileen koutak	25.944.985	29.287.104	13

Gure azterketan egiaztatu dugu laginean hautatutako erabiltzaileek ordaindutako prezio publikoak bat datozen legez eskatutako betekizunekin. Eraitza zuzena da.

**5.9. Bestelako diru-sarrerak***Inbertsioak besterentzea*

Diru-sarreraren 6. kapituluko honako partida hau aztertu dugu:

Diru-sarreraren partida	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	Kobrantzak, 2022
Inbertsioen besterentzea	2.753.310	2.753.310





Egindako besterentzea izan da Taxoareko lurzati bat saltzea, Club Atlético Osasunak 2015ean ordainean emana. 2022an, Nafarroako Gobernuak hala erabaki ondoren, lurzati hori klubari eskualdatu zaio zuzeneko besterentzearen bidez, klubak lehentasunez eskuratzeko eskubidea baitzuen.

6,50 milioiko eskualdaketa-prezioa ezarri da eta 2,50 milioi ordaindu dira eskrituraren egunean, 2022ko uztailean. Gainerakoa 2023ko ekainean eta 2024ko ekainean ordaindu behar da. Egindako azterketan oinarrituta, eskualdaketa aplikatu beharreko esparruaren arabera egin dela ondorioztatu dugu.

### *Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak*

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 216,9 eta 196,91 milioioak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	
		(milakotan)	2022/2021 aldea (%)
Estatuko Administrazioaren transferentzia arruntak	356.211	199.927	-44
Fundazioen transferentzia arruntak	178	203	14
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak	97	183	89
Toki entitateen transferentzia arruntak	2.007	2.041	2
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	194	179	-8
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	35	6	-82
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	21.976	14.361	-35
<b>Transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>380.698</b>	<b>216.900</b>	<b>-43</b>
Estatuko Administrazioaren kapital-transferentziak	152.475	177.473	16
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen kapital-transferentziak	0	0	-
Toki entitateen kapital-transferentziak	1.396	136	-90
Enpresa pribatuenak	114	0	-100
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen kapital-transferentziak	0	0	-
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	35.711	19.305	-46
<b>Kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>189.696</b>	<b>196.914</b>	<b>4</b>

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak % 43 (163,80 milioi) murriztu dira 2021ekoekin alderatuta, batez ere COVID-19arengatik Estatuaren laguntzak kendu direlako; izan ere laguntza horien bidezko diru-sarrerak 120,80 milioi txikiagoak izan dira aurreko ekitaldikoak baino.

Transferentzien bidezko diru-sarrerak % 4 (7,22 milioi) handitu dira. Estatutik jasotako diru-sarreraren gehikuntzaren zati handiena Next Generation funtsei dagokie.

- 2022ko ekitaldiaren itxieran, Next Generation funtsetako diru-sarreraren eta gastuen betetzea eta korrelazioa honako hau zen:

(milakotan)





Next Generation funtsetako gastuak eta diru-sarrerak	2020	2021	2022	Guztira, 2022/12/31
<b>Gastuak</b>	<b>41</b>	<b>4.218</b>	<b>59.685</b>	<b>63.944</b>
Arruntak		1.906	17.507	19.412
Kapitalekoak	41	2.312	42.178	44.532
<b>Diru-sarrerak</b>	<b>5.510</b>	<b>174.571</b>	<b>191.940</b>	<b>372.021</b>
Arruntak		49.968	36.088	86.056
Kapitalekoak	5.510	124.603	155.852	285.965

Adierazi behar dugu datuok “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana inplementatze aldera hartu diren neurriak”<sup>19</sup> izeneko gure fiskalizazio txostenean jasotakoak baino handiagoak direla eta ez datozela bat horiekin, kontabilitate sistemako esportazio daten ondorioz. Izan ere, kontabilitatean badago aukera gastu eta diru-sarrera gehigarriak egozteko eta gastu eta diru-sarreraren egozpenak doitzeko.

Txosten honetan egiaztatu ditugun datu eguneratuak bat datoz kontabilitate sistemako informazioarekin eta Gobernu Irekia webgunean 2023ko maiatzeko informazioan argitaratutakoarekin.

- Bestalde, kanpotik jasotako diru-sarreraren murrizketa, nagusiki, Eskualde Garapenerako Europako Funtzari (EGEF) dagokio, sei milioi gutxiago jaso baitira, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzari (LGENF) ere bai, lau milioi gutxiagoko diru-sarrerak izan baitira.

- Toki entitateetatik datozen diru-sarreraren jaitsieraren arrazoia da, funtsean, 2021eko unean uneko zenbait diru-sarrera ez direla jaso 2022an.

## 5.10. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak

### Zordunak

2022ko abenduaren 31n, zordunen saldoa 459,88 milioi eurokoa zen, eta honako datu hauei zegokien:

	2021/12/31	2022/12/31	(milakotan) 2022/2021 aldea (%)
<b>Zordunak</b>			
Aurrekontuko zordunak	930.126	979.416	5
Aurrekontukoak ez diren zordunak	64.389	93.118	45
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	3.221	3.417	6
Bestelako zordunak	6.163	6.322	3
Kaudimengabeziatarako hornidura	(606.304)	(622.391)	3
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>397.595</b>	<b>459.882</b>	<b>16</b>

<sup>19</sup> 2023ko martxoaren 28an argitaratutako txostena





Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Aurrekontuko zordunak dira osagai garrantzitsuenak, eta, funtsean, kudeaketa arrunteko egoeran, premiamendu-bidean edo tributu-zorra geroratuko egoeran dauden tributu-zordunak dira.

2022ko abenduaren 31n, saldoaren % 64 zegoen kaudimengabeziatarako hornituta (622,39 milioi euro). Hornidura horri buruz, adierazi behar dugu urteko kalkulua beti egin dela % 90eko portzentaje konstantea aplikatuz ekitaldiaren itxierako saldoari.

Halaber, kaudimengabeziatarako horniduraren zenbatespenak diruzaintza-gerakinari eragiten dio, haren kalkuluan kontuan hartzen baita bilketa zaileko eskubideei dagokien zenbatekoa.

Honako hau da aurrekontuko zordunen osaera:

	(milakotan)		
Aurrekontuko zordunak	2021/12/31	2022/12/31	2022-2021 aldea (%)
Departamentuetako zordunak	30.752	39.011	27
Kudeaketa arrunteko zordunak	200.687	227.298	13
Luzapena eman zaien zordunak	65.538	67.007	2
Premiamendu bideko zordunak	627.430	640.367	2
Egoera berezietako zordunak	9.603	9.873	3
Erosketak itzultzeagatiko zordunak	675	554	-18
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>934.685</b>	<b>984.110</b>	<b>5</b>
Sortu ez diren korrituak eta errekarquak	-4.559	-4.693	3
<b>Aurrekontuko zordunak, guztira</b>	<b>930.126</b>	<b>979.416</b>	<b>5</b>

Aurrekontuko zordunen 2022ko saldo orokorra aurreko ekitaldikoa baino % 5 (49,29 milioi) handiagoa da. Nolanahi ere, kontzeptu garrantzitsuena premiamendu bideko zordunena da, 640,37 milioi egiten baitu, hau da, zordunen guztizko zifraren % 65.

Bestalde, luzapena eman zaien zordunen saldoak epe luzeko 25 milioi biltzen ditu, eta horregatik birsailkatu egin beharko litzateke eta epe laburreko zatitik bereizi.

- “Aurrekontukoak ez diren zordunak” atalean, “Diru-laguntzen aurrerakinengatiko zordunak” kontua sartu da; kontu horren saldoa 93,03 milioikoa zen 2022ko abenduaren 31n, eta aurreko ekitaldikoarekin alderatuta % 45 (28,71 milioi) handiagoa da.

Kontu honetan daude jasota araudi aplikagarriaren arabera aurrerakintzat hartzen diren eta onuradunak ondoren justifikatu behar dituen dirulaguntzak. Haren saldoa ezeztatu egin behar da dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, orduan egotziko baitzaio gastua emaitzen kontuari.





Ekonomia eta Ogasun Departamentuan kontabilitateko zenbait erregularizazio egiten ari diren arren, ezin izan dugu egiaztatu haren saldoa justifikatutako zenbatekoan ala justifikatu gabeko zatian murriztu ote den. Hortaz, ezin dugu zehaztu balantzeko saldo hori zuzena den. Akats hori jada agerian jarri zen Ganbera honek 2021eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egin zuen txostenean.

- “Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CATen eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua), 5,27 milioiko saldoa baitu, osorik hornitua. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duenez, zenbateko hori ez dago behar bezala oinarrituta.

### *Epe laburreko hartzekodunak*

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen jaulkipenari eta beste balio negoziagarri batzuei dagozkienak jaso gabe, zeren eta jadanik aztertuta baitaude, 499,75 milioi eurokoa da 2022ko abenduaren 31n, eta honako hauei dagokie:

	(milakotan)		
Epe laburreko hartzekodunak	2021/12/3	2022/12/3	2022/2021 aldea (%)
Aurrekontuko hartzekodunak	177.376	350.899	98
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	9.166	11.348	24
Administrazio publikoak	4.796	4.974	4
Bestelako hartzekodunak	148.926	125.197	-16
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	7.363	7.327	0
<b>Guztira</b>	<b>347.627</b>	<b>499.745</b>	<b>44</b>

Hartzekodun horiek % 44 (152,12 milioi) egin dute gora. Osagai garrantzitsuen aurrekontuko hartzekodunak dira, zeinak guztizkoaren % 70 baitira eta % 98 igo baitira (173,52 milioi) 2021ekoekin alderatuta.

- Jada adierazi dugunez, bere horretan jarraitzen du CATen eta SAPGE21en arteko loturaren arazoak, eta horren ondorioz bi aplikazioen arteko informazio trukea ez da egokia. Hori dela-eta, zergen itzulketagatiko aurrekontuko hartzekodunen eta beste hartzekodun batzuen ataletako emaitzak lortzeko, kontabilitateaz kanpoko doikuntza egiten da CATen zordunei eta hartzekodunei buruz dagoen zerga-informazioarekin. 2022an, doikuntza orokorra 209 milioi eurokoa izan zen.





• Bestalde, “413 Aurrekontuari aplikatzeko dauden hartzekodunak” kontua aztertu dugu. Ekitaldiaren itxierako kontabilitate-saldoa eta aurreko ekitaldikoa-  
rekiko aldea honako taula honetan ageri dira:

	2021/12/31	2022/12/31	2022/2021 aldea (%)
Aurrekontuari aplikatzeko dauden hartzekodunak	32.025.890	41.695.252	30

Kontu honek egindako gastuen edo jasotako ondasun eta zerbitzuen ondori-  
ozko betebeharrak jasotzen ditu. Halakoak ez zaizkio aurrekontuari aplikatzen  
harik eta aurrekontu-egozpena aitortzeko eta likidatzeko egintza formala eman  
arte.

NFKAren espedienteak kudeatzeko programa (Extr@) eta Fakturen Erregistro  
Orokorra (FACE) ezarri zirenean, kontu hau haietan integratuta gelditu zen, kon-  
tabilitateko idazpenak automatikoki erregistratu eta konpentsatzeko moduan.

Gure fiskalizazioan urtebetetik gorako antzintasuna duten saldo konpentsatu  
gabeak aurkitu ditugu, bai eta FACEn baztertu baina 413 kontuan irauten zuten  
fakturak ere.

Kontu honek garrantzi handia du urtero Kontabilitate Nazionalean magnitu-  
deak kalkulatzeko egin behar diren doikuntzetan. Horregatik, aurrekontu-egon-  
kortasunerako arau fiskal guztiak berriz ere indarrean jartzen direnean, kontu  
honen saldoek ahalik eta fidagarritasun handienarekin kontabilizatuta agertu be-  
har dute.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

• *FACe erregistroko eta Extr@ programako erregistro batzuk aztertzea, kon-  
pentsatu gabeko saldoak sortzen dituztenak “Aurrekontuari aplikatzeko dauden  
hartzekodunak” kontuetan, eta haiek zuzentzea.*

• *Kontu horiek aldian behin eta modu estandarizatuan aztertzeke prozedura  
ezartzea, konpentsatu gabe dauden saldo zaharrak eta akatsak zuzentze aldera.*





## 5.11. Diruzaintza

2022ko abenduaren 31ko diruzaintza 721,88 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:

Kontzeptua	(milakotan)		
	Saldoa 2021/12/31	Saldoa 2022/12/31	2022/2021 aldea (%)
Diru-sarreren kontu bereziak	15.011	14.055	-6
Diru-bilketarako kontu murriztuak	91.380	48.904	-46
Kontu korrante operatiboak	223.921	659.006	194
<b>Guztira</b>	<b>330.312</b>	<b>721.878</b>	<b>119</b>

Diruzaintzako saldoak % 119 (391,57 milioi) igo dira, funtsean, kontu operatiboen saldoa % 194 handitu delako (435,08 milioi gehiago). Nabarmendu behar dugu Hitzarmen Ekonomiko berriaren 657,16 milioiko likidazioa 2022ko abenduaren 30ean kobratu izana dela gorakada horren arrazoi nagusia. Aurreko ekitaldian abenduko likidazioa 146,38 milioikoa izan zen.

Beste alde batetik, diru-bilketarako kontu murriztuek % 46 (42,93 milioi) egin dute behera, funtsean, helbideratutako kobrantzetarako sarrera-epearen arauak aldatu egin direlako<sup>20</sup> eta ondorioz hurrengo ekitaldian kobratu direlako helbideratutako zenbateko batzuk.

Egindako banku-zirkularizazioa aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu saldoak justifikatuta daudela eta sinadura baimenduak zuzenak direla, oro har.

---

<sup>20</sup> 114/2021 Foru Agindua, urriaren 18koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 23ko 80/2008 Foru Agindua. Foru agindu horren bidez hein batean garatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua, zergen aitortpen-likidazio edo autolikidazio batzuei dagozkien ordainketak bankuan helbideratzeari dagokionez.







## 5.12. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk

*Zorpetzea*

Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 2.867,73 milioi eurokoa zen 2022ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

Zorra	2021/12/31	2022/12/31	(milakotan) 2022/2021 aldea (%)
Nafarroako zor publikoa	1.056.952	1.060.323	0
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.510.593	1.551.500	3
Epe luzeko maileguak sektore publikoarekin	15.232	10.120	-34
<i>Epe luzeko zorpetzea (A)</i>	<i>2.582.777</i>	<i>2.621.943</i>	<i>2</i>
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	139.995	121.000	-14
Epe laburreko maileguak finantza-entitateekin	99.760	101.260	2
Epe laburreko zorrak sektore publikoarekin	1.835	1.955	7
Zor publikoaren epe laburreko interesak	16.364	13.686	-16
Maileguen epe laburreko interesak	7.161	7.888	10
<i>Epe laburreko zorpetzea (B)</i>	<i>265.115</i>	<i>245.789</i>	<i>-7</i>
<b>Zorpetzea, guztira (A+B)</b>	<b>2.847.893</b>	<b>2.867.732</b>	<b>1</b>

Hona hemen azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Ez dago alde nabarmenik zorpetzearen bolumenean.
- 2022an, zor publikoak zorpetze osoaren % 41 hartzen du; 2021ean, berriz, % 42 hartzen zuen.
- Finantza-erakundeekiko epe luzeko maileguk % 3ko igoera txikia izan dute, 2021ean 1.510,59 milioi izatetik 2022an 1.551,50 milioi izatera igarota (40,91 milioi).
- 2022an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren araberrako batez besteko interesa ondoren erakusten duguna da:

Zorpetze modalitatea	Itundutako zorpetzea, 2022	Batez besteko interes tasa, 2022	Zorpetzea, guztira 2022/12/31	Batez besteko interes tasa
Nafarroako zor publikoa	125.000	1,8	1.181.323	1,77
Finantza-entitateen maileguak	282.000	1,7	1.277.760	1,05
Europako Inbertsio Bankuaren maileguak	-	-	350.000	1,23
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.279	-
Beste sektore publiko baten maileguak	-	-	7.789	0,19
<b>Zorpetzea, guztira</b>	<b>407.000</b>	<b>1,75</b>	<b>2.826.151</b>	<b>1,36</b>

Zorraren batez besteko interes-tasa globala % 1,36koa da 2022an; ia ez da aldatu aurreko ekitaldiko % 1,34ko tasaren aldean.





• NFKAren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Finantza-zama (milioiak)	384,80	469,45	412,05	355,57	681,37	425,11
Indizea	100	122	107	92	177	110
Diru-sarrera arrunten gainean (%)	10	12	10	9	14	8

Finantza-zama % 10 hazi da aztertutako aldian, eta diru-sarrera arruntetan duen pisu erlatiboa % 10etik % 8ra pasatu da aztertutako aldi osoan.

Hala ere, azpimarratu behar da urteko finantza-zama hainbat faktoreren mendeko aldagaia dela, amortizazio aurreratuak egiteko aukeraren mende dagoela neurri handian (horrelako amortizazio bat egin zen 2021ean), eta interes-tasaren aldaketek ere eragiten diotela. Ondorioz gorabehera esanguratsuak izan ditzake, eta ez diote beti erantzuten portaera lineal bati.

• Hurrengo taulan erakusten dira zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeke aurreikuspenak:

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira	Ehunekoa	(milakotan)
			Ehuneko metatua
2023	224.215	7,9	7,9
2024	234.488	8,3	16,2
2025	261.340	9,2	25,4
2026	213.657	7,5	32,9
2027	182.420	6,4	39,3
2028	286.545	10,1	49,5
2029	241.700	8,5	58,0
2030	212.700	7,5	65,5
2031	189.537	6,7	72,2
2032	114.000	4,0	76,2
2033	126.986	4,5	80,6
2034	32.000	1,1	81,8
2035	159.861	5,6	87,4
2036	-	0,0	87,4
2037	65.687	2,3	89,7
2038	43.000	1,5	91,2
2039	-	0,0	91,2
2040	74.597	2,6	93,9
2041	-	0,0	93,9
2042	124.221	4,4	98,3
2043	-	0,0	98,3
2044	49.493	1,7	100
<b>Guztira</b>	<b>2.836.446<sup>21</sup></b>		

Ikus daitekeenez, zorraren erdia 2029 baino lehen amortizatu behar da.

<sup>21</sup> Zenbateko horri gehitu behar zaizkio Gizarte Segurantzarekiko mailegu baten 9,26 milioi eta Estatuak emandako aurrerakin eta maileguen 2,36 milioi.





- Zor publikoaren jaulkipena fiskalizatu dugu. Guztira 125 milioikoa da, eta gure azterketaren emaitza zuzena da.

- 2022ko martxoan, rating agentzia batek Nafarroako epe luzeko zorrari kalifikazio hau eman zion: “AA-, perspektiba egonkorrekin” (baimendutako gehieneko maila, Estatuaren balorazioa kontuan hartuta). Hala, aurreko ekitaldiko kalifikazioari eutsi zaio.

### *Emandako abalak*

- Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 42,12 milioikoa zen abenduaren 31n, eta honako sailkapen honi zegokion:

	(milakotan)		
Emandako abalak	Saldoa, 2021/12/31	Saldoa, 2022/12/31	2022/2021 aldea (%)
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	965	789	-18
“Nafarroa Abala” programa	322	37	-89
Club Atlético Osasuna	13.668	9.594	-30
NICDO-Los Arcosko zirkuitua	6.736	4.038	-40
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	41.489	27.659	-33
<b>Guztira</b>	<b>63.180</b>	<b>42.117</b>	<b>-33</b>

Guztizko saldo bizia ehuneko 33 jaitsi da (21,06 milioi gutxiago), eta nabarmentzekoa da Sodena-EIBri dagokion saldoaren beherakada (13,83 milioi).

2022an ez zen abalak gauzatzearen ondoriozko gasturik izan.

Sodenarentzako abala eratu zen sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio proiektuak finantzatzera bideratua. Printzipalaren gaineko abal bat da (100 milioi), bai eta abala exekutatzeko unean Sodenak entitate horri edozein finantzaketa-kontraturen kontzeptuan (interesak, komisi-oak, zamak eta abar) zor diezaiokeen edozein zenbatekoren gainekoa ere. Gainerako abaletan, NFKAk soilik maileguaren printzipala dela-eta erantzuten du.





### 5.13. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak

#### Sozietate publikoak

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, kontu orokorren oroitidazkian bildutako informazioaren arabera:

(milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietatea	Ekitaldiko emaitza	Foru Administrazioaren dirulaguntzak (1)	NEKPren ekarpenak	Epe luzeko zorpetzea (2)	Ondare garbia	Batez besteko langile kop.
CEIN	62	1.512	-	17	1.477	60
CNAI	25	-	-	-	159	37
CAT	8.189	-	-	76	61.093	3
NIK	54	319	-	2	3.811	113
INI	-20	-	9.000	-	9.078	-
Intia	-178	7.925	-	27	3.421	197
Nasertic	492	433	-	2.123	12.225	129
Nasuvinsa	234	3.700	1.000	30.383	250.301	155
NICDO	-38.367	3.555	7.500	1.348	33.898	67
Nilsa	-	-	-	-	902	52
Potasas de Subiza SAU	1.743	-	-	-	8.487	-
Salinas de Navarra SA	3.540	-	-	-	20.582	75
Sodena	-2.967	1.267	12.500	13.855	81.725	25
Start Up Capital Navarra SA	-43	-	-	-	891	-
Tracasa	91	79	-	-	10.795	57
Tracasa Instrumental	449	83	-	-	23.127	510
NEKP	-10.551	64	-	-	476.447	15
<b>Guztira (3)</b>	<b>-37.247</b>	<b>18.939</b>	<b>30.000</b>	<b>47.831</b>	<b>998.417</b>	<b>1.496</b>

(1) NEKPri buruzko datuen iturria: kontu bateratuak eta kudeaketari buruzko txosten bateratua.

(2) Zorpetzean, ez dira sartu taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

(3) Bateratu gabeko datuak.

Honako hauek dira NEKP talde bateratuaren 2022ko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

(milakotan)

NEKP talde bateratuaren adierazleak	2021	2022	2022/2021 aldea (%)
Ondare garbia	666.944	667.324	0
Epe luzerako zorrak	54.179	47.844	-12
Pasibo korrontea	89.404	98.979	11
Maniobra-funtsa	266.339	291.884	10
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	137.554	111.400	-19
Negozio-zifraren zenbateko garbia	187.738	201.179	7
Negozio-zifraren ehunekoia, NFKAren batera egin-dakoa	32	33	3
NFKAtik jasotako kapital-dirulaguntzak <sup>(1)</sup>	2.560	1.053	-59
NFKAtik jasotako ustiapeneko dirulaguntzak	14.704	17.886	22
Langile-gastuak	69.716	77.712	11
Ustiapeneko emaitza	15.239	-7.355	-148
Ekitaldiko emaitza bateratua	8.151	-19.493	-339
Sozietate nagusiarri esleitutako emaitza	7.708	-20.329	-364
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak <sup>(2)</sup>	40.507	42.853	6
NEKPko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	6,65	7	5
NEKPko goi zuzendaritzako ordainsariak	93	96	4
Goi zuzendarien batez besteko kopurua <sup>(2)</sup>	12	14	12

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Integrazio orokorraren bidez bateratutako menpeko enpresei soilik dagokienez.





Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2022ko epe luzeko zorrak % 12 txikiagoak dira aurreko ekitaldikoak baino, eta 47,84 milioi euro egiten dute guztira.
- 2022ko pasibo korrontea % 11 handitu da 2021ekoarekin alderatuta, eta 98,98 milioikoa izatera iritsi da.
- NFKAtik 2022an jasotako dirulaguntzak 18,94 milioi eurokoak dira, 2021ekoak baino % 10 handiagoak.

Ekitaldiko emaitza bateratuak eta sozietate nagusiari esleitutakoak behera egin dute nabarmen 2022an, % 339 eta % 364 murriztu baitira, hurrenez hurren, eta balio negatiboak izan dituzte 2021eko balio positiboekin alderatuta. Alde negatibo horren arrazoia NICDOren 31,49 milioiko kontabilitate-galera izan da. Hain zuzen ere, sozietate publiko horrek eta enpresa pribatu batek Los Arcosko zirkuitua erosteko aukerarekin alokatzeko kontratua egin izanaren ondorio izan da.

NEKPren enpresa taldearen osaera honako hau da kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

NEKP taldearen osaera	2021	2022
Menpekoak-Sozietate publikoak	16	17
Elkartuak eta talde anitzekoak	11	11
Parte hartutako beste batzuk	59	56

Mendeko sozietateei beste bat gehitu zaie, 2022an Nafarroako Inbertsio Institutua (INI) sortu baita, eta parte hartutako beste batzuen kopuruak behera egin du, hiru sozietate galduta, urteko kontu bateratuetako informazioaren arabera.

2022an INI sozietate publikoa sortzeari dagokionez, espediente administrati-boa aztertu dugu eta bi gorabehera nagusi nabarmentzen ditugu:

- 2022ko apirilean hasi ziren izapide administratiiboak. Ondare Zerbitzuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren hasierako proposamenaren aurkako txostena eman zuen, Sodenarekiko funtzio-bikoiztasunean oinarrituta.
- Hori horrela, Ondare Zerbitzuak, INI sozietatea sortzeari buruz aldeko txostena eman ahal izateko, gobernu-erabaki proposamen bat prestatu zuen. Bertan, xedapen zatian, sozietatea sortzea baimentzeaz gain, 12 hilabeteko gehieneko epean egin beharreko jarduketa hauek bildu ziren:
  - a) SODENA eta CEIN sozietate publikoen arteko integrazio handiagoa gartztea.
  - b) SODENako Balio Sorreraren eta Arrisku Kapitalaren Arloa INIn integratzea.





c) SODENAREN xede soziala aldatzea.

Hau azpimarratzen dugu c) apartatuari buruz: sozietate publikoen estatutuetan xede sozialaren aldaketak egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena eskuratu behar da aldez aurretik<sup>22</sup>.

- Gobernuaren 2022ko maiatzaren 11ko Erabakiak INIren sorrera bakarrik onetsi zuen. Ez ziren erabakiaren xedapen zatian jaso Ondare Zerbitzuak atzemandako bikoiztasunak saihestuko zituzkeen gainerako jarduketak, batez ere Sodenaren xede sozialaren aldaketa. Espedienteko txostenetan (Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiarena eta NEKPrena) adierazten zen beranduenez 12 hilabeteko epean ekinen zitzaiela aipatu jarduketei.
- 2022ko uztailaren 29an, INI notarioaren aurrean eratu zen erantzukizun mugatuko merkataritza-sozietate gisa, 100.000 euroko kapital soziala zuela, oso-osorik NEKPk ekarria.

Azterketa egin ondoren, hona gure konklusioa:

- INIren eta Sodenaren helburuak elkarren antzekoak dira, sozietate publiko horien jardueraren helburua Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-garapena baita.
- INIren xede soziala jada Sodenaren baitan zegoen.
- Ez dago jasorik NEKPren txostenean azaldutako jarduketak burutu direnik, ez eta Nafarroako Gobernuak Sodenaren xede soziala estatutuetan aldatzeko behar den baimena eman duenik ere. Txosten hau eman den egunean, beraz, bi sozietate publikoetako baten helburua beste sozietatean lehendik ezarrita dagoen berbera da.

Horri dagokionez, azpimarratzen dugu hitzez hitz honako hau ezartzen dela Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen zioen azalpenean: “...xedeaz izanik, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoaren zati funtsezko baten (batez ere sozietate publikoak) eraginkortasuna eta eragimena arrazionalizatu, koordinatu eta ahal den onena bilakatzeko testuinguru bat eta tresna bateratu eta berariazkoa sortzea....”.

Hori guztia dela-eta, honako hau gomendatzen dugu:

*Neurri egokiak hartzea INI eta Sodena sozietateek jarduera berberak izatea edo haien arteko bikoiztasuna saihesteko.*

<sup>22</sup> Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2004 Foru Legearen 108. artikulua.





## *Sozietate publikoen auditoretzak*

Sozietate publikoek urteko kontuei eta legeria betetzeari buruz kanpoan egindako auditoretzak aurkezten dituzte, auditoretzako enpresa pribatuek eginak, Kontu-Hartzailtzako Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratuta.

Urteko kontuei buruzko auditoretza guztietan iritzi aldatu gabea edo aldekoa dago.

Legeria betetzeari buruzko auditoretzen helburua izan da honako alderdi hauek egiaztatzea: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen betetzea, zorpetze-eta abal-eragiketei dagokienez; obrei, hornidurari, zerbitzuei eta obra publikoen eta zerbitzuen emakidei aplikatzekoa zaien kontratazio-araudiaren betetzea; langileen kontratazioei eta ordainsari-sistemei buruzko araudiaren betetzea; egin diren kontraprestaziorik gabeko diru-emateei eta babesletza-kontratuei buruzko araudia betetzea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean jasotako bestelako legezko betekizunak betetzea eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetzea. Auditoretza horien emaitzak<sup>23</sup> honako hauek dira:

a) Zorpetze-eragiketei, maileguei eta abalei dagokienez, ondorioztatu da aplikatzekoa den araudia bete dela. Abalei dagokienez, sozietate batean salbuespen bat adierazi da, ezin izan direlako aplikatu baimenduta baina formalizatu gabe zegoen eragiketa bat aztertzeko programatutako prozedura guztiak.

b) Kontratazio publikoei dagokienez, 120 kontratuz osatutako lagin batetik ondorioztatu da ezen, oro har, aplikatzekoa den araudia bete dela aztertutako espedienteetan, baina garrantzi txikiko sei gorabehera jarri dira agerian, eta beste gorabehera bat jarri da agerian kontratu txikiaren figura bidegabeki baliatu delako.

c) Langileen kontratazioak eta ordainsari sistemak aztertuta, konklusioa da araudia bete egiten dela, oro har. Halere, bi salbuespen aipatu dira: lanpostu batean egonkortze tasa oker aplikatu delako bata, eta departamentuetako zuzendarien ordainsarien muga gainditu delako, bestea. Bi salbuespen horiek sozietate banatan egin dira.

d) Kontraprestaziorik gabeko diru-emateei buruzko araudia betetzeari dagokienez, ondorioztatu da aplikatzekoa den legeria bete dela. Babesletza-kontratuei dagokienez, salbuespen bat jaso da.

e) Bestelako legezko betekizunak betetzeari dagokionez, ondorioztatu da aplikatzekoa den araudia bete dela.

---

<sup>23</sup> Kontu-hartzailtzako Zuzendaritza Nagusian berrikusten ari diren auditoretza-txostenetan jasotako emaitzak erakusten dira.







### Fundazio publikoak

Hurrengo taulan fundazio publikoen 2022ko datu agregatu batzuk eta haien eta 2021ekoen arteko alderaketa erakusten ditugu:

Fundazioen adierazleak	2021	2022	2022/2021 aldea (%)
Ondare garbia	3.485	4.913	41
Epe luzeko zorra	5.797	5.008	-14
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	19.163	22.701	18
Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzak	10.555	11.521	9
Langile-gastuak	12.393	14.530	17
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	9.368	11.067	18
Maniobra-funtsa	7.248	7.083	-2
Emaitza, guztira	68	1.478	2.084
Goi kargudunen kopurua (A)	5	5	0
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	270	326	21
Langileen kopuru osoa (A+B)	275	331	20

Fundazioen urteko kontuei auditoretzak egin zaizkie, eta horietan guztietan hau da iritzi mota: aldatu gabea edo aldekoa.

Bestalde, Baluarte Fundazioari buruzko auditoretza-txostenak haren ondare garbi negatiboa azpimarratzeko paragrafo bat dakar. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak dagoeneko berariaz adierazi du finantza-laguntza emanen diola, ordaintzeko betebeharrak eta konpromisoak bete eta bere eragiketen jarraipena bermatu ahal dezan. Egoera hori agerian jarri genuen jada aurreko ekitaldiko kontu orokorreko buruzko gure txostenean.

Enpresa publikoekin egin den bezala, 2023an eman ziren legeria betetzeari buruzko 2022ko auditoretza-txostenak, enpresa publikoentzat deskribatuta dauden helburu berberekin.

Emaitzak honako hauek dira<sup>24</sup>:

a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

b) Kontratazio publikoei dagokienez, 26 kontratuko lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela, baina bi salbuespen adierazten dira fundazio banatan. Horietako batean azaltzen da ez zaiola publizitate egokirik eman lizitazio prozedura bati, eta beste fundazioan adierazten da bi kontratutan bidegabeki baliatu dela kontratu txikiaren figura.

<sup>24</sup> Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusian berrikusten ari diren auditoretza-txostenetan jasotako emaitzak erakusten dira.







c) Langileen kontratazioa eta ordainsari sistemak aztertuta, ondorioztatzen da ezen, oro har, araudia bete egin dela, baina hiru salbuespen azaltzen dira bi fundazioetan. Salbuespenetako bitan aipatzen da indarrean edo eskuragarri ez zeuden kontratazio zerrendak erabili direla. Hirugarren salbuespenean aipatzen da hitzarmen kolektibo baten arabera ordainsari batzuk ordaindu direla eta enplegatu publikoentzat lege ezarritakoak baino handiagoak izan direla.

d) Kontraprestaziorik gabeko diru-emateei, dirulaguntzei eta babesletza-kontratuei buruzko araudia betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

e) Bestelako legezko betekizunak betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da, oro har, aplikatzekoa den araudia bete dela, nahiz eta aipatu behar den bi fundazioen webguneez ez dutela jasotzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen zenbait artikulutan ezarritako informazio guztia.

Amaitzeko, adierazi behar dugu 2023ko martxoan eman eta argitaratu dela<sup>25</sup> 2021eko ekitaldiko emaitzei buruzko laburpen-txostena, Kontu-hartzailtzako Zuzendaritzak onesten duena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sozietate eta fundazio publikoek legeria betetzeari buruz erabakitako prozedurei eta urteko kontuen auditoretzei dagokie.

Aztertze prozesu horretatik ondorioztat atera zen auditore pribatuek adierazitakoak baino ez-betetze gehiago egin zirela. Zehazki, honako ohar hauek gehitu genituen:

- Ordezte-tasen alorreko ez-betetzeak lau sozietatetan eta fundazio batean.
- Ordainsarien alorreko ez-betetzeak sei sozietatetan eta fundazio batean.
- Dirulaguntzarik eman ezin izatearen ondoriozko ez-betetzea sozietate batean.

---

<sup>25</sup>[https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/informe\\_resumen\\_definitivo\\_audit\\_cuentas\\_y\\_proc\\_acordados\\_soc\\_y\\_fund\\_2021\\_anexos\\_sin\\_firmas\\_para\\_transparencia.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/informe_resumen_definitivo_audit_cuentas_y_proc_acordados_soc_y_fund_2021_anexos_sin_firmas_para_transparencia.pdf)





## Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

Kontuen Ganberak 2022ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egindako txostenean adierazten da, "Glukosa monitorizatzeko flash-free style gailuen hornidura O-NOZeko zentroetarako" izeneko kontratua dela-eta, amaierako exekuzioa % 11,34 (271.952 euro) desbideratu dela adjudikazioaren zenbaketatik, horretarako alde aurretik kontratuan aldaketa egin behar zela nahitaez, baina ez dela halakorik formalizatu, eta, gainera, baldintza-agirietan ez dela kontratua aldatzeko aukerarik agertzen.

Kontratua 2022ko abenduaren 31n amaitzekoa zen, gehiago luzatzeko aukerarik gabe. Beste espediente bat izapidetu genuen 2023. urterako. Urrian oraindik ere -% 11ko exekuzioa genuen (negatiboa), azaroan +% 0,36koa, eta abenduan iritsi ginen +% 11,34ra.

Etengabeko hornidura bat da, eta medikuen preskripzioan dago eskariaren iturria. Hori horrela, oso zaila zen aurreikustea, urtean zeharreko datuak ikusita, abenduan % 10a gaindituko zela.

Bestalde, agerian jartzen du, Nafarroako Gobernu osoarentzat, kontratu-oinarri egokirik gabeko kontratazio bolumen garrantzitsua. Gure iritziz, beste behin agerian gelditu den gertaera orokor hori departamentu bakoitzaren kontratazio bolumenaren arabera da, eta gure kasuan, osasunaren sektorean, autonomia erkidego guztietako osasun sistema guztietan hedatuta dago. Hori horrela, badi-rudi badagoela beste zerbait, kudeaketa hutsetik harago, gertatzen ari dena azalduko lukeena, eta zer hori batera aztertu behar genuke erosketa publikoan dihardugun edo haren egituraren, antolaketaren, prozesuetan eta prozeduretan eragiteko ahalmena dugun alderdi guztiok.

Kontratazio administratiboa prozesu korapilatsu bilakatu da, eta tramitazioak luze jotzen du. Horrela zaila da plan egokiak egitea, ezin direlako aurrez zehaztu zenbait kontu, iragarri ezinezko egoerak, botere adjudikatzaileen kontrolpean ez dauden aldagaien arabera gerta daitezkeenak edo ez.

Gure kasuan, gogoeta orokor horrez gain, Kontuen Ganberak 2021eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egindako behin-behineko txostenaren gaineko alegazioetan jada adierazi genuen bezala, COVID-19aren pandemiak sortutako egoerak galarazi zuen lizitazio-ehuneko handiagoeekin lotutako helburuak betetzea, are halakorik planteatzea ere. Pandemiaren ondorioek nabariak izaten jarraitzen zuten 2022ko ekitaldian.

Horri zenbait gertaera erantsi genizkion, lizitzatzeko garaian berez izaten ditugun zailtasun horiek are agotu dituztenak, hala nola merkatuen ezegonkortasuna, pandemiak munduan sortu zuen egoera ekonomikoaren ondorio, estuguneak eta prezioen gorakadak eragin baitzituen. Horri guztiari energiaren krisia eta inflazioa gehitu zaizkio, Ukrainako gerrak bereziki eragindakoak, beste arrazoi batzuen artean. Prezioen igoera orokorraren eta hornidurak garaiz lortzeko zailtasunen ondorioak dira etengabeko stock hausturak, prezioak berrikusteko zailtasunak direla-eta hornitzaileek luzapenei uko egitea (horrek asko laburtzen du kontratuen indarraldia), eta, aldi berean, lizitzatzeko zailtasunak, prezioen ezegonkortasun handia ikusita hornitzaileak ez direlako aurkezten lehiaketetara edo beren eskaintzak erretiratzen dituztelako.

Merkatuaren hausturaz gainera, osasun-laguntzako langileek eta laguntzakoak ez direnek gaur egun eskariari aurre egin behar diote pandemia garaiko jarduera berreskuratzeke, eta aldi berean erakundearen beste premia batzuei erantzun behar diete, besteak beste Europako funtsen bidezko finantzaketaren ondoriozko espedienteen kudeaketari; hori guztia, behin-behinekotasun handiko plantilla batean abian jarritako egonkortze prozesu handiek eragindako ezegonkortasun aldi baten barruan.





Ezegonkortasun horrek langileen etengabeko mugikortasuna eragiten du eta arazoa ez da berehala konponduko.

Oro har, aldi honek erakutsi eta nabarmendu du beharrezkoa dela plantillen dimentsioak aldatzea, erosketaren kudeaketa eraginkorra lortu nahi bada. Larrialdi egoerak areagotu baino ez ditu egin arazo horiek. Pandemiak erakundeak estutu du, kudeaketa egokiarekin bateraezinak diren muga arrakatsuetaraino estutu ere, eta, gainera, galarazi egin du hobera egiteko planteamendu eta teknikei heltzea.

Laburbilduz, gaur egun badiraute aspaldiko eta funtsezko arazoek, oraingo gertaeren ondorioz larriagotuta, eta, gure kasuan, horiek guztiek osasun sistema guztiak ukitzen dituzte eta zenbait alor biltzen dituzte, legegintzako barne. Hala ere, espero dugu hurrengo aldia egonkorragoa izanen dela, guztion artean heldu ahalko diegula kontratazio mailaren hobekuntza nabarmena ahalbidetuko duten jarduketei, eta nabarmen eginen dugula hobera 2023ko ekitaldiaren itxierarako.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea: Alfredo Martínez Larrea jauna





## **Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna**

Eskerrak ematen dizkiogu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari, aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eranstean zaizkio eta hori behin betikotzat ezartzen da, jotzen baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla alegazio horiek, eta ez dutela haren edukia aldatzen.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak  
digitalki sinatua, alboan adierazitako egunean)*

